

hh  
hik hasi

**Irakasleak, kultur eragile**  
**Premia berezietatik abiatutako**  
**egokitzapenak denentzat direnean**  
**Segregazioaz ari garenean, zertaz ari gara?**  
**Mugak beharrezkoak dira**  
**Donostiako Aquariuma**  
**Esteban Borrome eta Ortzi Jauregi**



“ Ohituta gaude, baina euskaldunok  
mutilatuta bezala bizi gara ”

AMETS ARZALLUS

# GAZTETXOENTZAT IRAKURGAIK



# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## IRAKASLEAK, KULTUR ERAGILE

Azpeitian 2019an egin ziren 'Sormenean hezi, kulturari bizi' izeneko jardunaldiek eta gerora egin diren hainbat ikerketek erakutsi dute euskal kulturaren transmisioan atzerapauso handiak bizi izan direla, oro har gizartean, eta, zer esanik ez, hezkuntza arautuan. Gaiaz kontzientzia hartzeko eta eragiteko, **Hik Hasiren** Udako Topaketa Pedagogikoetan ikastaroa eskainiko du Kultur Sormen Transmisioaren lantaldeak.

ELKARRIZKETA / 18

## AMETS ARZALLUS

Iparraldeari lotutako nortasunetik abiatuta, Euskal Herri osoan barna ibiltzen da Amets Arzallus bertsolaria. Bertsogintzatik jolastuz lantzen ditu euskara eta euskal kultura, eta horien transmisioak ematen dio buruko minik handiena. Lan nekeza izan arren, hizkuntzaren eta Euskal Herriaren kontzientzia landu behar direla dio argi, eta horrekin batera humanismoaren praktika burutu, teoriatik egunerokora jaitsita.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu, Olatz Lasagabaster.

**Erredakzio batzordea:** Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Azaleko argazkia:** Idoia Zabaleta / Foku. **Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANtza S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2022-6-29). Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Erronkaz eta ilusioz beteriko ikasturte berrira arte!

10 GAI NAGUSIA

Irakasleak, kultur eragile

18 ELKARRIZKETA

AMETS ARZALLUS

“Ohituta gaude, baina euskaldunok mutilatuta bezala bizi gara”

26 ESPERIENTZIAK

Premia batetik abiatutako egokitzapenak denentzat direnean

30 EKARPENAK

Agurra

32 EKARPENAK

Segregazioaz ari garenean, zertaz ari gara?

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Mugak beharrezkoak dira

36 GALDEIDAZU

Zer erakutsi digu COVID-19aren konfinamenduak eskolen eta udalen arteko elkarlanari dagokionez?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Donostiako Aquariuma

42 ATZEKO ATETIK

Esteban Borrrome eta Ortzi Jauregi



# Gelako egunerokoa alda dezakeen akuilua

## editoriala

NEKEA PILATU DA IKASTURTE AMAIERAN IRAKASLEEN MOTXILETAN. OPORRAK OPOR IZAN DAITEZELA, ATSEDEN HARTU ETA INDARBERRITZEKO. ZINTZILIK DITUGUN HAINBAT GAIREKIKO HASIKO BAITUGU IKASTURTE BERRIA.



**K**arpetak itxi eta bagoaz. Hain erraza balitz... Jarri dugu nota, oraindik zenbaki gorri edo beltzez batzuek; apainago beste batzuek... baina epaitu ditugu ikasleak, edo bederen *ikasi* dutena eta ez dutena. Badira, eta gero eta gehiago, eskerrak!, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, harremanei, denborei, espazioei, eskaintzaren kalitateari, manerei begiratu dietenak hezigarri ebaluatzeko. Baita, jakina, norbere lana ebaluatzeko hautua egin duenik ere: nola bideratu ditut /ditugu taldean ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak? Zer eskaini diet egunerokoa eta ikasturtean ikasleei? Nola baliatu ditut denbora eta espazio eta materialak? Zer-nolako harremanak garatu eta sustatu ditut? Eta... zer mantenduko eta hobetuko dut ikasturte berrian?

Aurten, beste behin, Udako Topaketa Pedagogikoetan hobetu nahi dugun horretan sakontzeko tresnak jasotzeko aukera izango dugu. Erronkaz beteriko ikasturte berri bat datorkigu. Irrikaz har dezagula, ahaldunduta, jantzita, prest. Izango dira, buruari atsedean eman eta gorputzari indarra emateko ikastaroak ere.

“Oso gorputzaldi eta burualdi nekatuarekin, aztoratuarekin” ikusten ditu Amets Arzallusek inguruan dituen ikasle eta irakasleak, elkarrizketa nagusian esan digunez. “Dena da abiadura handia”, “frenetikoa” dio. Orokortu litekeela esango genuke. Ebaluatu beharko genuke endemikoa bihurtzen ari zaigun estres hori ere.

Karpetak itxi eta bagoaz, esan dugu. Baina hainbat gai zintzilik ditugula hasiko dugu oporraldia. Itxi gabe, bederen aldizkari hau ekainaren hondarrean inprentara bidaltzean, Nafarroako 0-3ko hezitzaileen greba. 50 egunetik gora, duin, oso duin baina merezi duen arreta osoa jaso gabe, haurtzaroaren defentsan eta erabat prekarioa eta feminizatua den sektorearen baldintzen duintzearen alde. Erdi bideko erantzun batekin itxi da Ipar Euskal Herrian, euskararen aitortzaren aldeko borroka, Pirinio Atlantikoetako Akademia Ikuskaritza okupatuz eszenifikatu duena Seaskak —Nafarroan PAI ereduaren aurkakoa ere izan da—, Pap Ndiaye Frantziako Hezkuntza ministroarekin bilkura egin gabe, Euskal Hirigune Elkargoaren bermea lortu ostean. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Hezkuntza Hitzarmenaren ikasturtea izan da. Legea aukera on bat da, baina ongi mamitu behar da. Azken ohartarazpena kulturgingintzatik egin da, Arzallusek elkarrizketan dioen bezala, ia maparik ere ez duen *euskal* horrek funtsik izango badu, hezkuntzan nola gizartean, euskararen kulturaren transmisioa bermatu behar du eskolak, eta kultur eragileek ekainaren 16arekin Donostian inoiz ez bezalako argazki bateratuan adierazi zuten bezala, “berariaz” jaso behar du Hezkuntza Legeak kultur transmisioaren errubrika.

Nekatuta baina gogotsu. Oporrak izan daitezela opor. Erronkaz eta ilusioz beteriko ikasturte berrira arte!

**“Beauvoirren ekarpen nagusiarekin lotu dezakegu euskaldunaren eraikuntza: emakumea jaio ez baizik egin egiten den modu berean, euskalduna ere jaio ez, egin egiten dela”**

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel

# HILEKO IRUDIA

---





## BESTE KOLPE BAT EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEARI

Brebeta eta baxoa euskaraz egiteko eskubidearen aldarriari kolpeka eta negarra eragiteko gasarekin erantzundio Frantziako Poliziak. Urteetako aldarrikapena Pirinio Atlantikoetako Akademia Ikuskaritzaren egoitzara eramandu Seaskaren Azterketak Euskaraz ekimenak. Ehun bat lagunek okupatu egin dute Baionako egoitza, ekainaren 15arekin. Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin biltzea eskatzen dute, entzun ditzala. Lau eguneko okupazioaren buruan erantzunik ez, ordea. Ez Frantziako Hezkuntza Ministeriotik, ez Bordeleko errektoretzatik, ezta Pirinio Atlantikoetako Akademia Ikuskaritzatik ere. Euskal Hirigune Elkargoaren babesa jaso du Seaskak, egoitza publiko bat ezarriko du Seaskaren esku, euskarazko azterketak Seaskakoak ez diren irakasle aditu eta euskaldunek zuzendu ditzaten. Ez da Frantziako Hezkuntza Ministerioak zuzenketa ofizialak egiten dituen baldintza beretan izango, baina bai erakunde ofizial batek babestutako agiri bat. Urrats bat da. Baina txikia. Handia, aldiz, Seaskako ikasle, irakasle eta familiak erakusten ari diren kuraia.

**Argazkia: Guillaume Fauveau**  
Baionan, 2022ko ekainaren 18an

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HURRENGO SEI URTEETARAKO EGITASMOA AURKEZTU DU HEZKUNTZA SAILAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak datozen sei urteetan aplikatuko dituen neurrien berri eman du. Hainbat neurri aurreikusi dituzte eta guztien helburua hezkuntza sistema “eraldatzea” dela esan du Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak. Ekitatearekin eta segregazioarekin lotutako hamalau neurri iragarri ditu guztira. Horietako batzuk jada martxan daude eta beste batzuk datorren ikasturtean abiatuko dituzte. Besteak beste, heldu den ikasturtean ikasgela bakoitzean dagoen ikasle “zaugarrien” kopurua mugatzeko araubidea fintzen ari direla esan du Bildarratzek. “Ekitatea” hobetzeko neurrien artean, egun itunpeko eskolek kobratzen dituzten kuotak galarazteko asmoa dute. Oro har, ikasleen banaketa egokiagoa ziurtatzea da helburua, eta ikasleen aniztasunarekin lotutako aparteko erronkak dituzten ikastetxeei beharrezko baliabideak ematea. Era berean, 2023rako eskola publikorako plan estrategikoa egiteko asmoa iragarri du Bildarratzek. Legea izan arte zenbait birmoldaketa egitea ezinezkoa izango dela aurreratu du sailburuak eta behin legea izanda garatuko da plan estrategikoa. Orduan jarriko dituzte martxan beste hainbat neurri ere: Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluaren araubidea moldatuko da, eta ikastetxe publikoen autonomia-rako arau aldaketa eta ikastetxeak publiko egiteko arau aldaketa egingo dira.

Bestalde, itunpeko eskoletako ratioak jaitsi ditu Hezkuntza Sailak. Gela osatzeko 17 ikasle behar ziren orain arte eta hemendik aurrera 13 ikasle aski izango dira. Beste lau neurri ere iragarri dituzte: gaur egun ikasgelak 34 ikaslerekin bikoiztu daitezke eta aurrerantzean 28tik aurrera bikoizteko aukera izango da. Udalerriko gela bakarra denean 11 ikaslerekin osatuko dute taldea, hezkuntza-komplexutasun indizeko kasuetan zortzi ikaslerekin osatuko dute taldea eta azkenik, hezkuntza laguntzarako espezialistak eta hezkuntza osagarriko programak ituntzea erabaki dute.

## EUSKARAFOBIARI PLANTO!

Euskararen Defentsarako Sarea sortu dute Nafarroan eta euskararen aurka-ko neurriak askotariko ekintzen bidez salatuko dituzte aurrerantzean. Nafarroako Hezkuntza Departamentuak Tuterako Hizkuntza Eskolan euskarari ezarritako murrizketak salatzeke egin dute lehen ekintza Euskararen Defentsarako Sareko kideek. Euskara ikasteko sei maila daude eskola horretan, baina maila bakoitzean ikasle gutxi daudela argudiatuta, hiru talde besterik ez dituzte onartu nahi eta, horren ondorioz, Tuterako Hizkuntza Eskolako ikasleek ezingo dute euskara ikasteko prozesu osoa bertan gauzatu. “Aurrerantzean euskarak eta euskaldunok jasaten ditugun etengabeko erasoei aurre egingen diegu. Euskaldunon eta euskaltzaleon pasibitatea astindu behar dugu. Gure aurkako politikak ez dira erantzunik gabe geratuko”, adierazi dute Euskararen Defentsarako Sareko kideek, eta ekintza gehiago iragarri dituzte.

## ELHUYAR ZIENTZIA AZOKAREN 10. EDIZIOA EGIN DUTE



12-18 urte bitarteko gazteek ikasturtean zehar landutako 200 STEAM proiektu ikusteko aukera izan da Bilboko Areatzan, baita tailerrak, esperimenduak eta zientzia-ikuskizunak ere. Zientzia-ginkana, esperimendu likatsuak, Matriuska antzezlanak eta Adrenalina zientzia ikuskizuna izan dira, besteak beste, lau egunehar luzatu den azokan.

54 ikastetxetako 700dik gora gazteek hartu dute parte Elhuyar Zientzia Azokan, eta Euskal Herriko ikerketa-zentroek eta unibertsitateek ere esku hartu dute. Unibertsitateko eta hainbat zentro teknologikotako 218 ikertzailek (horien artean 199 emakume) eman zuten izena ikasturte hasieran ikasleekin batera lan egiteko.

Gazteen artean zientziarako zaletasuna suspertzea eta kultura zientifikoa bultzatzea eta zabaltzea da Elhuyar Zientzia Azokaren helburua.

# HIZPIDE IZANGO DA

## HIK HASIREN FORMAZIO ESKAINTZAN IZEN-EMATEA ZABALIK

Zabalik da **Hik Hasik** datorren ikasturterako antolatu dituen formazioetan izen-emateko aukera. *0-6 etapako aditu titulua, Jirafaren hizkuntza, Komunikazio ez-bortitza, Psikomotrizitate erlazonala* eta *Lehen Hezkuntza eraldatzen* dira formazio horiek. Lehen Hezkuntza eraldatzen ikastaroa aurreneko aldiz eskainiko du **Hik Hasik** eta bi urteko gradu ondoko formazioa izango da. Izen-ematea eta informazio gehiago [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) atarian.



## PSIKOMOTRIZITATE SENTSIBILIZAZIO IKASTAROAK

Sentsibilizazio ikastaroa eskainiko du Luzaro psikomotrizitate eskolak irailaren 16tik 18ra Gasteizen. Ikastaro hori eginda, Heziketarako Psikomotrizitate Praktikan Formatzeko bi urteko ikastaroa egiteko aukera izango da. Hauek dira ikastaroaren helburuak: taldean parte hartzea mugimenduaren, jolasaren eta harremanaren bidez, erlaxazio tonikoa eta luzatze-eraketak bizitzea eta barneratzea, besteekin akordio tonikoa hastea, nor bere gorputzaren kontzientzia hartzea eta nor bere gorputzaren eta mugimenduaren bizipena ezagutzea. Izen-ematea eta informazio gehiago: [www.luzaro.net](http://www.luzaro.net).

## GREBAN JARRAITUKO DUTE NAFARROAKO HAUR ESKOLETAKO LANGILEEK

0-3 Plataformarekin zuen azken bileran bertan behera utzi du Nafarroako Hezkuntza Departamenduak eta Eider Garde 0-3 Plataformako bozera-maileak gobernuaren “gutxiespena” salatu du eta bilera bertan behera uzteko “aitzakiak” erabili dituela adierazi du. Aurreko asteko bileran Hezkuntza Departamenduak egindako proposamenari idatziz erantzun ez diotelako utzi du bilera bertan behera gobernuak eta plataformaren ustez, hori “aitzakia” besterik ez da. Gainera, egutegia ez errespetatzea leporatu diote gobernuari.

60 egunetik gora daramatzate greba mugagabean Nafarroako haur eskola



Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan kateatu ziren 0-3 Plataformako kideak joan den ekainaren 22an Hezkuntza Departamenduaren “gutxiespena” salatzeko.

publikoetako langileek. Nafarroako Gobernuaren azken eskaintza “eskasa eta iraingarria” dela iritzita, lanuzteari eustea erabaki dute: “Proposamen

hori gure ahotsa isiltzera datorrela uste dugu, eta ez dutela benetako proiektu bat 0-3 etapa kalitatez elikatzeko”.



Azpeitian 2019an egin ziren 'Sormenean hezi, kultura bizi' izeneko jardunaldiek eta gerora egin diren hainbat ikerketek erakutsi dute euskal kulturaren transmisioan atzerapauso handiak bizi izan direla, oro har gizartean, eta, zer esanik ez, hezkuntza arautuan. Gaiak kontzientzia hartzeko eta eragiteko asmoarekin sortu zen KST Kultur Sormen Transmisioaren lantaldean Hezkuntza Batzordea. Sentsibilizazio lana egiten ari da sorreratik, hezitzaileak jabetu daitezzen euren ikasleen kultur erreferente direla, eta ariketa, jarduera eta proposamenekin kultura bat edo batzuk erreproduzitzen dituztela. **Hik Hasiren** Udako Topaketa Pedagogikoetan ikastaroa eskainiko du KST lantaldeak, lehendabizi hezkuntza komunitatea egoeraz eta bere rolaz jabetzeko, eta ondoren, irakasgai guztietako irakasleek euskara, euskal kultura eta Euskal Herria erreferentzia marko gisa erabiltzeko baliabideak ezagutu ditzaten.

# GAIA: IRAKASLEAK, KULTUR ERAGILE

## KULTUR SORMEN TRANSMISIOA ESKOLAN

Irakasle guztiak kultur eragile dira. Jabetu ala ez. Kontzienteki ala inkontzienteki. “Edozein irakasle, edozein jarduera, aurkezpen, proiektu pentsatzen duela, erreferentzia marko batean kokatzen da, ohartuta ala oharkabean, eta erreferentzia marko hori lurralde bati, kultura bati eta komunitate bati —edo batzuei— lotua dago”. Iratxe Retolaza irakaslea eta literatur kritikaria jabetu da erreferentzia marko hori oharkabean hautatzen dela eskuarki, irakasle gehienek ez dituztela Euskal Herria, euskal kultura eta euskal komunitatea marko erreferentzial gisa hautatzen. “Iraleko ikastaroetan eta beste batzuetan irakasleekin gai hau landu dugunean ikusi dugu marko erreferentzial hori gure ingurune naturalari baino gehiago, blaitzen gaituzten beste kulturei lotzen zaiela”. Adibide bat jarri du: “Martxoaren 8a delako tutoretzan hezkidetzaz zehar lerro gisa landu behar dugunean, zer-nolako materiala erabiltzen dugu?”. EHU-n Retolazak Soziologian ematen zuen irakasgaiko ikasle batek gradu amaierako lan bat egin zuen eskola publikoetara hezkidetzaz lantzeko bidalitako material zehatz bat aztertuz eta ondorioztatu zuten “nahiz eta ikasleei eginiko galderak euskaraz egon,

erreferentzia marko guztiak, bideoak, adibideak, testuak, kantuak, guztiak gaztelaniaz zeudela”. Marko erreferentziala eta ikasleen eskura jarritako materiala euskal kulturari ez lotzeak ondorioak ditu: “Horrek esan nahi du ikasleek ez dutela gaiari buruzko diskurtsoetan euskaldunik ikusten; hezkidetzaren alderdi asko, izan sexualitate askatasunak, izan genero estereotipoak, izan transexualitatea... ez dituztela euskararekin eta euskal komunitatearekin lotzen. Eta, gainera, euskal kulturari gai horiek lantzeko garatu diren abestiak, bideoak, dokumentalak, lekukotzak... —kopuru izugarria direnak gaur egun— ez dituzte eskoletara eramaten. Beraz, hezkidetzaren kasuan, beste komunitate batzuetako marko erreferentzialak erabiltzen diren neurrian, badirudi ikasleak alor horretan askatzeko beste hizkuntza batera bideratzen ditugula. Homosexualitatean *sexilioa* egin behar den bezala (homosexualitatean bizitzeko beste lurralde bat hautatu behar izaten den bezala), badirudi hizkuntzan eta kulturari ere norbere identitateak garatzeko esaten ari gatzazkiela *hizkuntza exilioa* egin behar dutela”. Zer gertatuko litzateke, ordea, irakasleak, berariaz eta kontzienteki, euskara, euskal

kultura eta euskal komunitatea hartuko balitu marko erreferentzial gisara bai hezkidetzan lantzeko baina baita irakasgaiak, izan Humanitateak edo Fisika lantzeko ere?

Hausnarketa hori zabaldu nahi du KST Kultur Sormen Transmisioaren lantaldeak. KST lantaldeak euskal kulturaren egoera hezkuntza arautuan zer-nolakoa den ezagutzeko *Sormenean hezi, kulturaren bizi* jardunaldiak antolatu zituen 2019an Azpeitian (UEUK, Elkar Fundazioak, Jalgik eta **Hik Hasik** bultzatuta). Argazki zaila erakutsi zuten jardunaldiek: “Alarma gorriak pizteko egoeran” gaudela esan zuen Retolazak, eta Gotzon Barandiaran idazleak euskal kulturaren transmisioa Zainketa Intentsiboko Unitatean irudikatu zuen. Datuek berretsi egin dituzte adierazpenak: hala nola Siadeco / Eusko Jaurlaritzaren 2018ko ikerketa baten ondorioa izan zen kultur zaleek erdarazko ekoizpena lehenesten dutela; Soziolinguistika klusterraren *Arrue* ikerketak EAEko ikasleen atxikimendu falta agerian utzi zuen 2019an; Mintzola eta EHuren 2020ko ikerketak ikasleek sentitzen dutena adierazteko arazoak dituztela nabarmendu zuen eta Eskola Kontseiluaren urte bereko bilketak mahaigaineratu zuen LHko ikasleen % 37k eta DBHkoen % 46k euskara maila baxua dutela. Berez, egun oraindik indarrean dagoen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoaren Legeak euskal kultura irakasgai guztietan zehar lerro izan behar dela badio ere, *de facto* ez dela egiten ondorioztatu zen —“curriculumaz zehazteke dagoelako” edota “baliabide didaktiko adosturik ez dagoelako” —, eta Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ikastetxeetako curriculumetan berariaz ez dela jaso ere egiten euskal kulturaren transmisioa.

150 bat pertsona batu ziren Azpeitian eta hortik KSTren Hezkuntza Batzordea sortu zen. Hezkuntzari dagokionez, premia nagusia kulturaren transmisioa “egituratu eta sendotu beharra” dela ondorioztatu zuten. Batzordearen egitekoetako bat euskal kulturaren transmisioa eta gizarteratzea eskolaren bidez ere egin dadin proposamenak egitea izaki, eraginkorra irakasleen sentsibilizaziotik hasita dela erabaki du lantaldeak, formazioan eragitea. Eta hortik sortu da **Hik Hasiren** Udako Topaketa Pedagogikoetan Retolazak, Barandiaranek eta Ion Celestinok

eskainiko duten *Sormenean hezi, kulturaren bizi* ikastaroa. Aiako Harria Gaztelumendi eta Oihana Amundarain dira Hezkuntza Batzordeko bi irakasle: “Datuek eta ikerketek erakutsi dute arrakala ikaragarria dela, baina euskal kulturaren transmisioan etena gelditzeko irakasleok geronek ere alor horretan nola eragin ez dakigula ohartu ginen, Euskara irakasle batzuek, akaso, hartuko dute kultur sorkuntzaren transmisioan eragiteko ardura, baina ez Euskara irakasle guztiek, eta zer esanik ez beste arloetako irakasleek. Ikusten dugu diziplina guztietako irakasle guztiak bihurtu behar direla kultur eragile, baina horretarako begirada aldatu behar dugu eta formatu egin behar dugu. Asmo horrekin diseinatu dugu ikastaro hau”.

### Lehen urratsa: kontzientzia hartzea

Gizartean ikusten diren datuen gisakoa da, oro har, salbuespenak salbuespen, eskoletan ikusten duten egoera. “Sekula baino aniztasun handiagoa dago kultur sorkuntzan, diziplina guztietan, baina badirudi, irakasle, guraso eta zerbitzuetako langileengana ez dela iristen euskal kulturaren transmisioa. Are gehiago, familia euskaldunetara ere ez da lehen bezala iristen, eta euskaldun ez diren familietako haur eta nerabeek ikastetxea dute aukera bakarra euskal kulturarekin nolabaiteko lotura izateko. Txiki-txikitatik eta modu egituratuan ikasleak aukera izan behar du ez soilik D ereduaren bitartez euskarara hurbiltzeko, baizik eta euskal kulturarekin lotutako guztia ikasteko. Eta hor ikusten dugu eten bat egon dela, transmisio falta egon dela urteetan zehar”, azaldu du Amundarainek. Euskal kulturaren ezezagutzaz gain, “sekulako distantzia eta indiferentzia” ere ikusten ditu Hezkuntza Batzordeko Gaztelumendik: “Ikasle batzuek gutxiespena erakusten dute *euskal* den horrekiko guztiarekiko. Oraindik aurreiritziekin jarraitzen dugu, adibidez, musika eraman eta astero kantu bat entzuteko proposamena eginez gero, ikasle batzuek, ezagutu ere egin gabe ‘euskarazko musika ez zait gustatzen’ esaten dute, euskalduna baserritarrarekin lotzen dute gaur egun ere. Horrek, euskaldunengan ere, euskaldun izatea konplexutik bizitzea eragiten du”.

Euskal kulturarekiko ezezagutzaz eta distantziaz gain, “hizkuntza gaitasun gero eta baxuagoa” nabarmen-

“Euskara irakasle batzuek, akaso, hartuko dute kulturaren transmisioan eragiteko ardura, baina ez guztiek, eta zer esanik ez Euskarakoak ez diren irakasleek”

Oihana Amundarain, irakaslea eta Kultur Sormen Transmisioaren lantaldeko Hezkuntza Batzordeko kidea

## GAIA: IRAKASLEAK, KULTUR ERAGILE



2019an Azpeitian egin ziren jardunaldietan 150 lagun batu ziren. Hortik sortu zen KST lantaldearen Hezkuntza Batzordea.

tzen du Gaztelumendik: “Hizkuntza gaitasuna gero eta baxuagoa da, ulermen arazo gero eta nabarmenagoak dituzte ikasleek, euskaraz bereziki. Esan nahi dutena eta sentitzen dutena adierazteko zailtasun nabarmenak dituzte askok, nahiz eta 3 urtetatik euskaraz ikasten aritu”. Antzera ikusten du egoera Amundarainek: “Ikasleek sekulako zailtasunak dituzte euskaraz komunikatzeko eta sentitzen dutena azaltzeko”. Aldiz, ikusia dute bi irakasleek euskara euskal kulturatik irakasten denean, musika eta literatura aberatsa eskainiz, adibidez, hizkuntzaren jabekuntza hobea dela. “Horretarako, ordea, Lehen Hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan eragin behar da, nerabezaroa beranduegi da”.

Berandu baino lehen, beraz, irakasleek duten rolaz jabetzeari garrantzia handia ematen diote Retolazak bezala Gaztelumendik eta Amundarainek: “Irakasleek, batetik, egoeraren kontzientzia hartzea garrantzitsua da, ‘hauxe da egoera’, alarmak ikusi eta ulertu eragiteko garaia dela. Horretarako, edukietan formatu beharrik ez dago, kontzientzia behar dugu irakasleok; konturatu zein den

benetan egoera eta ikusi norbere irakasgaian zenbateraino landu dezakegun euskal kulturaren transmisioa”. “Pentsatzen dugu Fisikan edo Kimikan ezin dugula kultura transmititu baina beti, pertsona gisa, irakasle gisa eta, zer esanik ez tutore gisa, gure gizarteko eta inguruko erreferentzien inguruan pista asko ematen ditugu etengabe. Asteburuan zer egin dugun kontatzen hasten garenean berean, ikusten da, adibidez, euskal kulturaren murgilduta gauden ala beste kultura batzuetan bizi garen, eta hori jaso egiten dute ikasleek.”

Abiapuntua irakasleen kontzientzia bada ere, KSTko Hezkuntza Batzordearen helburua euskal dimentsioa, hezkidetzaren gisan, ikastetxeen hezkuntza proiektuetako zehar lerro bihurtzea litzateke, curriculumak berez aitortzen duen gisan. Hala adierazi du Amundarainek: “Programak egon badaude, *Idazleak ikastetxeetan* eta halakoak, baina ez dira nahikoa. Egiturazkoa izan behar du, datuek erakusten duten egoerari buelta eman nahi bazaio. Ikastetxeko hezkuntza proiektuan txertatu behar da euskal kultura”.

“Kontzientzia behar dugu irakasleok; konturatu zein den benetan egoera eta ikusi norbere irakasgaian zenbateraino landu dezakegun euskal kulturaren transmisioa”

Aiako Harria Gaztelumendi, irakaslea eta KST lantaldeko Hezkuntza Batzordeko kidea

## Matematikak, euskal kultura transmititzeko

**Hik Hasiren** Udako Topaketa Pedagogikoetan 'Sormenean hezi, kulturaren bizi' ikastaroa eskainiko dute Iratxe Retolaza irakasle eta literatur kritikariak, Gotzon Barandiaran idazle eta kultur eragileak eta Ion Celestino irakasle eta musikariak. Euskal kultura errotzeko eta ekarpenak egiteko baliabide gisa aurkeztuko dute eta erremintak emango dituzte.

**N**ola erabili, adibidez Matematiketan, euskal kultura marko erreferentzial gisa?" galdetu diogu Iratxe Retolazari, Iralen eta beste hainbat ikastarotan gisako lanak prestatu baititu. Buruketa proposamen zehatz batekin erantzun du. "Remigio Mendiburu eskulturgileak 1961. urtean txalapartaren omenezko eskultura bat egin zuen, eta Ez dok Amairu ikurtzat hartu zuen. Txalaparta eskulturaren neurriak honako hauek dira: 86 x 430 x 68 cm. Joxanton Artze, Ez dok Amairu taldeko kidea zena, 1969. urtean *Isturitzetik Tolosan barru* liburua argitaratu zuen, eta azalean ere Ez dok Amairuren kartel batean, Mendibururen txalapartaren irudia zegoen. Halako zenbat txalaparta-eskultura beharko genituzke Isturitzetik Tolosarako errepidea betetzeko?". Horra hor euskal kulturaren transmisioa egiteko modu bat. "Behin irakasleak begirada aldatzen duenean, kontzientzia hartu eta euskal kultura eta euskal komunitatea marko erreferentzial gisa hartzen dituenean, oso gutxi eginda, berehala aldatzen da ariketak edo proiektuak proposatzeko modua", azaldu du adibideari erreferentzia eginaz. Horrexegatik, **Hik Hasiren** Udako Topaketetan emango duen ikastaroan, sarrera gisa, begirada aldatzeko gakoak eskainiko ditu: "Irakasleek kontzientzia hartzen dutenean gauzak aldatu daitezke". Eskoletara iristen diren materialak, edo sarean oso eskura dauden baliabideak, bideoak, zer komunitate erreproduzitzen duten galdetzea proposatzen du: "Irakasle asko ez dira konturatu ere egiten ikasleei proposatzen ari diren materiala ez dela ez euskal komunitateari ez euskal kulturari lotua. Agian, euskaldunak eta euskaltzaleak dira irakasle horiek, baina askotan

material bat jasotzen da ikastetxean, eta geure buruari ez badiogu galdetzen dena euskaraz eta euskal kulturari loturik eta euskal komunitateari loturik egin dezakegun, bidali diguten materiala erabiltzen dugu inertziak. Gero ordea, irakasleei ikuspegi hau azaltzen diegunean, oharzen dira eta bat egiten dute. Inertziak beste eremu edo lurralde batzuetan egindako lanak jasotzen dira itzulita, baina itzulpen linguistikoa bakarrik izaten da, ez dira *itzultzen* lurraldeari, kulturari eta komunitateari loturiko erreferentziak".

Euskal kulturak eskola behar du, hezkuntza arautuaren bidez egin daiteke transmisioa, baina haurrek eta nerabeek ere euskal kultura behar dute, Retolazak nabarmentzen duenez, kulturak norbanakoa eta komunitatea elikatzen dituen neurrian: "Ikasleari, besteak beste, bizi den ekosistema kultural, natural eta sozialean errotzeko eta ekarpenak egiteko aukera emango dio euskal kulturak. Hezkuntzak sustatu beharko luke —eta hala esaten du curriculumak— gure ekosistema natural, kultural eta sozialarekiko ardura, kezka, konpromisoa eta zaintza izatea. Bere inguruan gertatzen ari diren kultur bizitzen berri izateak laguntzen dio ikasleari kokatzen eta bere burua hortik irudikatua ikusten eta, batez ere, ekarpena egiteko eta eragile izateko aukera ematen dio". Ikasle hori etorri berria bada, errotzeko baliabideak ematen dizkio kulturak. "Harrera egiteko modu bat ere bada, eta baliabideak jasotzeko ere bai, berak izan ditzakeen ezagutzak besteekin partekatuzko. Erreferentziak eta tresnak ematen ez badizkiogu, oso zaila izango da ikasle etorri berria errotzea eta ekarpena egitea".

**"Nerabe batek bizi den auzoaz hitz egin dezake tradizioaren erremintetatik, baina horretarako, tradizioaren tresnak ezagutu behar ditu"**

Ion Celestino, musikaria eta irakaslea

## GAIA: IRAKASLEAK, KULTUR ERAGILE



Ines Osinaga musikaria Nafarroako *Musikariak ikastetxeetan* programako saio batean, ikasleekin.

Ikastaroaren bigarren partean, irakasgai guztietarako marko erreferentzial gisa euskal kultura zeinen erabilgarria den azalduko du Retolazak baliabideen berri emanez, gaur egun baliabide asko baitaude. Horien artean, audioliteraturako webguneak aipatuko ditu, *Xerezaderen artxiboa* podcasta, *Hitzen uberan*-en audio musikatuak, *Etxegi*roan audioliteratura, besteak beste, edota *Badok.eus* kantagintzaren ataria aurkeztuko ditu.

## Eskola, ekosistemaren parte

Gotzon Barandiaran idazlea sorreratik dago KST lantaldean Retolazarekin batera. Euskararen erabileran, ahozotasunean eta, oro har, euskal kulturaren transmisioan bizi izan diren atzerapausoekin kezkatua dago. Kultur adierazpideek, hitza darabiltenek eta hitzezkoak ez direnek “ikasleei pentsatzen eta sentitzen dutena adierazteko tresna ugari” eman diezazkieketela uste du: “Pertsona baten garapenerako ezinbestekoa da adierazteko bitartekoak izatea, eta ni saiatuko naiz proposatzen euskal musikagintzak eta kantagintzak zer ekarpen egin diezaiokeen adierazkortasunari”. Gure kantuen letrak aztertuta “batez ere emozionalki” zer adierazi den eta adierazten den partekatu nahi du irakasleekin.

Bizi ditugun garai hauetan, kultur adierazpideek “ñabardurak” ematen dizkigutela dio Barandiaranek. “Gaur egun, edukiak, informazioa eta jakintza inguru digitaletik jasotzen ditugu batik bat, eta zer esanik ez belaunaldi berriek, eta hori oso uniformatzailea eta globalizatzailea da. Aldiz, kultur adierazpideak ñabardura ematen dizu,

eta zure iritzia eta ekarpena emateko aukera. Eta hori pertsona gisa hazteko oso garrantzitsua da”.

Identitatea, nortasuna, nor izatea berariaz landuko du Barandiaranek ikastaroan, eta hala lantzen du baita ere, ia hamar urtez Rafa Rueda musikariarekin ikastetxerik ikastetxe daraman *Hitzen ahairea* kantagintzaren inguruko saioan: “Gure belaunaldikoek eta gaur egungo ikasleek hainbat kontzepturen inguruan ditugun diskurtsoek ez daukate zerikurisirik. Identitatearen gaia kantagintzak nola landu izan duen ikusita, ikasleekin gaiaz aritzeak ikasleei inpaktua egiten diela esaten digute irakasleek. Euskaldun identitatearen zutabeak, 70eko hamarkada arte hizkuntza, lurraldea eta fedea izan baitziren, eta gero Gabriel Arestik eta Amaia Lasak klase kontzientzia sartu zuten. Gazteengandik oso urrun dago identitate hori”.

Halaber, hezkuntza arautuak euskal kulturaren transmisioan egiteko garrantzitsua baldin badu ere, Barandiaranek argi eman nahi du mezua: “Euskarazko kulturagintzaren transmisioa ez da, inondik inora, irakasleen ardura soilik. Irakasleak kultur eragile direla esatean ez ditugu zamatu nahi, guztiz kontrara, guk euskarazko kulturagintzaren transmisioa gizarte osoaren ardura dela adierazi nahi diogu irakasleari”. Behin diskurtso hori azalduta, komunitate osoa, hezkuntza eta kultura batuz inplikatzaren diren adibide praktiko zehatzak ekarriko ditu, Larrabetzu bere herrikoa eta beste hainbat herritakoa: “Inauteriak lantzeko orduan, edo Gau Beltza, azaroaren 25a, martxoaren 8a, maiatzaren lehena edo Liburuaren Egunaren

## GAIA: IRAKASLEAK, KULTUR ERAGILE 'SORMENEAN HEZI, KULTURAN BIZI' IKASTAROA

inguruan, nola egin daiteke lan hezkuntza arautuko eragileen eta hezkuntza araututik kanpoko eragileen artean, udalarekin, herriko kultur eta euskara elkarteekin edo bestelako elkarteekin, zaleekin eta hedabideekin? Gelan eta gelatik kanpo kultur gaia lantzea da gakoa, eskolan bezala herrian, aldi berean, bizi dezala ikasleak”. Horrek kultur gintzaren biziberritzea ekartzeaz gain, ikasleentzako ahaldundia dakar, Barandiaranen aburuz: “Ikasleek bizitzen eta sentitzen dute gelan lantzen dutena ez dela eskolarako soilik, eta ez dela neurtzeko eta ebaluatzeko soilik, baizik eta gelan egiten dutenak haien eguneroko bizimoduarekin lotura duela ikusten dute. Herri batean hezkuntzak eta beste eragileek kultur gintzaren bitartez ekosistema moduan lan egiten badute, ikasleek jasotzen dute eurek egiten dutena gainerako herrikoideekin partekatzen dutela eta herrian eragina daukala”.

Ion Celestino irakasle, musikari eta Broken Brothers Brass Bandeko liderrak euskal kultura eta espezifikoki literatura eta musika irakasteko edo transmititzeko modu inklusiboa partekatuko du irakasleekin. Iturri zaharrak ur emaria etengabe berritzen duen bezala, kultura garaikideak tradizioetik nola edaten duen azalduko du, euskal kultur tradizioari gaurtik begiratzea proposatzen baitu.

Ekosistema gisa, adinartekotasuna zainduz eta auzo-



Iruinkoaren azken edizioko irudi bat.

lanean, eta batez ere euskaraz eta euskal kulturatik, Iruñean azken urteetan bizitzen ari diren esperientzia zehatzetatik abiatuko da Ion Celestino ikastaroaren bigarren egunean. Oso erdalduna den gune batean, Iruinkoaren bidez, euskaraz eta kulturatik komunitate sortzaile bat nola mamitu eta egonkortu den azalduko du, euskal kultura modu horizontalean nola transmititu den. Gaur eguneko zerbait berria sortzeko euskal kulturaren erroetan bilatu du Iruinkoak eta hori izan da, era berean, Celestinok bere proiektu pertsonaletan egin duen bidea ere. “Iruinkoaren forma inaute bat da, baina ideia Nafarro Behereko libertimenduetatik edo Zuberoko maskaraden formatatik forma berri bat sortzea da”. Dantzak, musika eta eszena uztartzen dituen kale antzezpena da Iruinkoak, inaute igandez hiriburuan egin dena dagoeneko lau aldiz. “Kontua ez da erreplika literala egitea, baizik eta formula herrikoietatik berria eta berezkoa den zerbait sortzea, gaur egungo Iruñerriarekin eta gu garen euskararen komunitatearekin lotura duena”. Eta horrela lortu du Iruinkoak gazteak, eta baita nerabeak ere *engantxatzea*, nagusiekin eta euskaraz erlazionatzea eta euskal kultura sortzea.

Motibazioa, interesa, lilura, freskura edota berritasuna dira Iruinkoaren erakarmenaren gakoetako batzuk, euskaraz eta euskal kulturak ezinbestean behar dituenak eta, zer esanik ez, hezkuntza testuinguruan. Tresna horiek aletu eta irakasleentzako eskura jartzea da Celestinoren asmoa, komunitate sortzaile honengandik ikas baitzake hezkuntza komunitateak. Parte-hartzea da beste gakoetako bat, nerabeek sorkuntza prozesuan parte hartu dute, euskal kultura biziz: “Sortze prozesuan tradizio posibleak aztertzen dira eta gurea eta garaikidea izango den zerbait sortzeko tradizioetik zer elementu hartu daitezkeen begiratzen da”. Ekoizpen berria sortzeko, tradizioari begiratzen dio Iruinkoak eta horrek tradizioaren ezagutza eskatzen du, Celestinoren arabera: “Kopla zaharretan edo Erdi Aroko baladetan egon diren tresna eta elementuetan zer errepikatzen da? Elementu horiek nola erabil ditzakegu gauza berriak sortzeko? Guri buruz ari diren proiektuak ekoizteko?”. Zertarako ikasi Etxepare, Aresti edo Lasa? Bada ordukoa ez ezik gaurkoa ulertzeko. “Nerabe batek bizi den auzoaz hitz egin dezake tradizioaren erremintetatik, baina horretarako, lehendabizi, tradizioaren tresnak ezagutu behar ditu. Bada beraz *Bereterretxeren kanthoria* ezagutzeko aitzakia, ez hainbeste arte obra bat edo tradizioa direlako, baizik eta elementu horiek euskararen kulturaren transmititu direlako eta gaurko errealitateaz hitz egiteko erabil ditzakegulako”.

## GAIA: IRAKASLEAK, KULTUR ERAGILE



## Kulturgintzaren konpromisoa

Hezkuntza komunitatea ez ezik, euskal kulturgintzaren komunitatea ere arduratuta dago euskal kulturak ikastetxeetan duen presentziaz, kultur eragileak kontziente baitira euskararen kulturaren transmisioan giltzarri garrantzitsua dela hezkuntza komunitatea. Hogeitik gora kultur eragilek (tartean ziren Bertsozale Elkarteak, Trikitixa Elkarteak, EIZIE itzultzaileen elkarteak, EHAZE antzerkizaleen elkarteak, Galtzagorri, EEE Euskal Editoreen Elkarteak, EIE Euskal Idazleen Elkarteak, Elkar Fundazioak, Ahotsenea...) eta 40tik gora sortzailek bat egin dute, KST lantaldeak deituta, hezkuntza komunitatearekin lan egiteko euskarazko kulturgintzaren transmisioa ikastetxeetan berma dadin. Ekainaren 16an agerraldia egin zuten Donostian, euren prestutasuna azaldu eta euskarazko kulturaren transmisioa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako idazten ari diren Hezkuntza Legean berma dadin eskatzeko. Hona hemen batu zituen testua:

“Azken hamarkadetan kultur sorkuntza zabaltzeko, transmititzeko eta gizarteratzeko moduak eraldatu egin dira: sorkuntza-testuinguru berriak sortu dira, kultur industriaren eraldaketak gertatu dira, kazetaritzaren parametroak aldatu dira, hezkuntza arautuan pedagogiak berritu dira, kultur sorkuntzaren berriak irakaskuntza murriztu da, kultur kritikaren ekarpenak sakabanatu dira, eta abar.

Paradigma aldaketa honen baitan eta azken urteotako

inkestak zein azterketek erakutsi dutenez, eten bat eman da eta gaur egun hezkuntza arautuak ez du bermatzen euskarazko kulturgintzaren transmisioa.

Testuinguru honetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Hezkuntza lege berri baten eztabaida mahai gainean dagoelarik, ezinbesteko deritzogu une hau baliatzea euskarazko kulturgintzaren transmisioaren gaia lehen lerroa ekartzeko.

Egin nahi den Hezkuntza lege berriak euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatu behar du hezkuntza eraldatzailea lortu nahi badugu, eta, hori hala izan dadin, garrantzi handia du legeak modu esplizituan jasotzea behar hori.

Hezkuntza lege berriaren Ituna irakurri ostean, euskarazko kulturgintzaren ekosistema osatzen dugun eragileok dagokigun arduraz adierazi nahi dugu:

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Hezkuntza lege berriak euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatu behar duela.

- Euskarazko kulturgintzaren ekosistemako eragile garenok kulturgintzaren transmisioa bermatu dadin hartu beharreko neurrien proposamen, eztabaida eta adostasun prozesuan parte hartu nahi dugula.

Euskararen eta bere kulturgintzaren normalizaziorako estrategikoa da hezkuntza arautuan ere transmisioa bermatzea. Guk ardura eta prestasun osoa dugu hala izan dadin”.



Argazkiak: Idoia Zabaleta / Foku

“Ikasle askoren burutan ez dago oso ondo marraztua Euskal Herriko mapa”

# ELKARRIZKETA:

# AMETS

# ARZALLUS

## BERTSOLARIA

---

Bizitza markatu dioten mugarri ugari ditu Amets Arzallus bertsolariak. Hendaian jaio eta Gipuzkoan familia edukitzeak mugaz bi aldeetan etxeko sentitzea ekarri dio. Seaskan pasatako urteetan xiberotarrekin eta baxenabartarrekin elkartzeak Iparraldeko izatearen sentimendua garatu zion, eta haiekin eta gertu-gertuko irakasleekin hartu zituen bizitzarako makuluak. Egun Sarako ikastolako guraso da eta leiho horretatik begiratzen dio hezkuntzari. Kazetaritza ikasketak

eginda, 'Euskaldunon Egunkarian' ikasi zuen ofizioa eta 'Argian' landu gero. Bazterrean utzi zuen lanbide hori bertso bideak nahikoa denbora eta energia hartzen ziolako. Nafarroako, Iparraldeko eta Euskal Herriko bertsolari txapelketetako txapelen artean gogoangarritzat ditu 2000an Goizuetan jantzi zuena, aitak ere han irabazi zuelako, eta 2009ko Euskal Herrikoa, Maialen Lujanbiorekin buruz burukora iritsi zenekoa. Ibrahima ezagutu eta 'Miñan' idaztea ere mugarri izan dira.



**Gainezka iritsi omen dira irakasleak ikasturte amaierara; umeak aztoratuta eta nekatuta; gurasoak estresatuta. Jendeak agendak beteta ditu. Zer iruditzen zaizu bizi garen abiadura edo erritmo hau?**

Nahiko abiadura frenetikoan bizi-tzen ohitzen ari garela esango nuke eta askotan gero eta erreboluzio handiagoan. Nahiz eta pandemiak espazioan eta denboran mugitzeko beste erritmo bat markatu zuen, bizitzaren oinarri jasangarriagoetatik hurbilago zegoena —beste alde batzuetatik nahiko jasangaitza izan bazen ere—, orain, berriz ateak askatu edo zabaldu direnean, badirudi lehengo hartara itzuli behar dela.

Frenesi handian bizi garela iruditzen zait.

Inguruan ikasleak eta irakasleak dauzkat eta oso gorputzaldi eta burualdi nekatuarekin, aztoratuarekin ikusten ditut. Eta zaila zaigu gurpil horretatik ateratzea. Dena da abiadura handia eta garai hauekin lotuta dago; aurrerapena abiadura handitzearekin ulertzen da ia-ia; hasi telefonoetatik, hasi informazio kontsumotik, hasi norbere mugimenduetatik... Dena da horrelako gurpil zoro bat eta oso zaila da hortik ateratzea. Estimulu batzuk sortzen ditu eta estimulua horiek jaisten direnean halako tristura moduko bat sortzen da, baldin eta

beste orekarik edo ikuspeirik ez baldin badaukagu. Itotzen gaituen abiadura horrek, aldi berean, erakarririk egiten gaituela dirudi. Horrelako mekanismo batean bizi gara.

**Gurpil zoro horretan, nola gaude humanismo eta balio aldetik? Zer irudipen duzu?**

Zaila zait erantzun orokor bat ematea, oso irudi eta ondorio desberdinetako laginak aurkitzen baitira. Nik, adibidez, azken hiruzpalau urteotan migrazioaren fenomeno oso hurbiletik ezagutzeko eta segitzeko zortea izan dut, bereziki gure herrian zehar iragaten direnean, eta pertsona horiek beste eskola bat



erakusten digutela konturatu naiz. Biharamunaren perspektiba zehatzik ez daukan pertsona batekin egiten duzu topo, oso baliabide material gutxi edo apenas ezer ez daukana eta bizitzaren oinarrizko balioei eta erroei helduta dabilena. Pertsona horrek egoera erlatibizatzen laguntzen dizu. Ez dugu lortzen haien lekuan jartzerik, eta ezinezkoa zaigula esango nuke, gainera. Baina pixka bat hurbilduz gero, bizitzaren oinarrizko balio edo oinarri xumeetatik hurbilago uzten zaitu eta pixkanaka ahanzten, galtzen eta urruntzen goazen eskolara hurbitzen laguntzen dizu. Orduan konturatzen zara batzuetan

erdi hegan bizi garela, lurrik ukitu gabe askotan.

Humanismoari dagokionez, zaila zait definitzen. Pentsamendu korronte bezala ondo funtzionatzen duela esango nuke, baina praktika politiko bezala ez hain ondo. Erakundeei buruz zer esango dizut, humanismoa batez ere kosmetika politikorako erabiltzen da, esku lokaztuak garbitzeko, hala iruditzen zait. Eta gure bizitzaren eskalara ekarriz, ez dut esaten pertsona bakoitzak ehuneko ehuneko koherentea izan behar duenik, ezinezkoa da, bakoitza bere kontraesanekin borrokan bizi da eta hori da bizitza. Baina hala ere, kontraesanen borroka horren barruan, oreka pixka bat bilatzea da kontua.

***Miñan* liburuarekin migrazioaren gaia gorditasunez edo errealismoz azaleratu duzu. Mundu ikuskera berri bat eduki daiteke liburu irakurrita?**

Ez dakit liburuak mundu ikuskera berri bat izateko adinako leihorik eskaintzen duen, baina mundua ikusteko modu bat edukitzeko ahalegina behintzat bada, askotan ez baitzaigu mundua azaltzen, ez baitzaigu iristen distantziagatik edo interes diferenteengatik. Eta, behintzat, munduaren zatitxo bat ikusteko balio du.

Liburuak, egia esan, konkretuki pertsona bati laguntzeko ahalegintxo bat izan da, eta bide batez, bai niri eta bai gu denoi begiratzeko leihotxo bat eskaini nahi digu. Gure etxe aurretik pasatu arren iristen ez zaigun munduaren erradiografia bat eskaintzeko ahalegina izan da: zer den Afrikaren zeharkaldia migrante batentzat, eta bide horretan existitu daitekeen guztia. Nik Ibrahimarekin topo egin nuen gisa horretan, haren harremanarekin, eta haren bidez kontaktu ahal izan dut. Bereaz gain, ehundaka eta milaka ahots dira.

Denok imajina dezakegu migrazioaren egoera, baina imajinazioak abstrakzio puntu bat du, eta nik, imajinazioa gainditzen zuen laztasun eta bortizkeria aurkitu dut Ibrahimarekin ezagututa.

Gure leihopetik, gure begi aurretik

“Itotzen gaituen abiadurak, aldi berean, erakarri egiten gaituela dirudi”

“Humanismoak pentsamendu korronte bezala ondo funtzionatzen duela iruditzen zait, baina praktika politiko bezala ez hain ondo”

“‘Miñan’ liburuak ez da duela hiru urte eta erdi Afrikatik Europara iritsi zen pertsona baten bidea, baizik eta egunero-egunero gure herria zeharkatzen duen historia”

“Gehien kezkatzen nauen gaietako bat da hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzaren inguruko altxor kulturala”



eta gure pausoezin gurutzatzen den jendea da, egunero ikusten duguna, eta behintzat, datorren jendea nondik eta nola datorren ulertzeko, jakiteko eta ikuspegi bat edukitzeko balio du liburuak. Bide horretatik datorren bati arabera harrera, tratu eta laguntza ematea esan gabe lihoake, baina hainbeste zailtasun eta traba dituzte, non migranteen odiseak segi egiten duen Europan oraindik.

**Ikastetxeetara joanez ibili zara liburuarekin. Zer lanketa egiten duzue eta zer mezu eman nahi izaten diezu?**

Batez ere aurretik gaia lantzen dutelako hurbiltzen naiz ikastetxeetara. Material pedagogiko gisa hartzen dute liburuak eta lanketa ho-

rren ostean nirekin kontrastatu nahi izaten dute. Solasaldi bat egiten dugu haiek izan dituzten bizipenak eta gogoetak eta nireak partekatzen. Ibrahima gaur egun nola dagoen galdetu izan didate, edo zer bizipen izan ditudan idazketa prozesuan, edo Ibrahimaren istorioak entzuterakoan nola eragiten zidan...

Liburuak nondik datorren eta zertarako zen esanez kokatzen ditut. Berez, pertsona baten asilo eskaeran laguntzeko txosten labur bat zen, ez ginen liburu bat egiteko asmotan hasi, gero bideak eman zion forma hori. Horrez gain, gaur egungo errealitatean ere kokatzen ditut: liburuak ez da duela hiru urte eta erdi Afrikatik Europan iritsi zen pertsona baten bidea, baizik eta egunero-egunero gure herria

zeharkatzen duen historia, duela hiru urte eta erdi, atzo, gaur eta bihar goizean berdin zeharkatzen segituko duena. Kontzientzia hori eman nahi diet.

Batzuek lanketa integral bat egiten dute, Irunera edo Hendaiara joaten dira, migranteen ahots bat bilatzen dute zuzenean... irakasleei eskertzen diet egiten duten lana.

**Gai potoloa da migrazioarena eta badugu potoloa den beste gai bat ere: euskarazko kulturaren transmisioa. Kultur transmisioak kezkatzen zaitu?**

Bai, noski kezkatzen nauela. Gehien kezkatzen nauen gaietako bat da hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzaren inguruko altxor kulturala. Diagnostikatuta dago arazoak dauzkagula euskarazko kulturaren transmisioan, esan beharrik ez dago euskararen transmisioan bertan, eta horrek dena ukitzen du. Arazo handiak ikusten ditut hizkuntzaren kalitatea, hizkuntzaren kontzientzia eta horren inguruko paisaia kultural guztia transmititzeko.

Teknologiak eta beste kultur transmisioek inguratuta gaude, gainezka dauzkagu eta gurea defendatzeko arazoak dauzkagu. Erdarazko kultur transmisioa sartzen da zirrikitu guztietatik, eta erdarazkoa esaten dudanean izan daiteke frantsesa eta gaztelaniazkoa bereziki, baina berdin ingelesez edo beste herrialde batzuetatik datorrena. Zeren kultura ez da hizkuntza bakarrik, beste kode oso bat baizik.

Inperio kultural eta linguistikoek kontrako borrokan bizi gara eta gu txikiak gara. Inperio handiak dira eta, gainera, inperialistak. Eta gu, oso baliabide prekarioekin ari gara inperio handi horien kontra borrokatzen.

Transmisioa naturalki gertatu beharko litzateke, baina argi dago egoera normalizatuan bizi ez garen bitartean gauzak ez direla naturalki gertatzen. Guk hizkuntzarekiko atxikimendu handia eduki dugu etxetik eta hori bizitza osorako ardatz gisa eduki dugu. Ez dakit zer eta nola egin behar den gure izateari eusteko eta, aldi berean,

paisaia berri horretan zentzu bat edukitzeko.

### **Euskarazko kulturgintzaren paisaiaren barruan kokatzen da bertsogintza. Zer ekarpen egin dezake te bertso eskolek eta bertsogintzak kulturaren transmisioan?**

Bertso eskolak bere alorretik transmisioaren kezka erantzuteko sortu ziren. Hala, bertsoaren jolasa transmititu dute, eta jolasarekin batera, inguruko sorkuntza kultural guztiarekiko gustua. Azken finean, bertsoa zerbait baldin bada, hizkuntzaren hitzen jolasa eta hizkuntzaren kontzientziaren eta sentsibilitatearen lanketa da. Eta sentsibilitate horrekin bat doa forma diferentetan ematen den sorkuntza kultural hori guztia. Bertso eskolen lanarekin bat doa nahigabe euskarazko kulturaren transmisioa.

Gaur egun bertso eskola bakoitzak aipatutako funtzio orokor horiek betetzen dituela uste dut: hau da, zaletasuna transmitituz hizkuntzaren kontzientzia eta kalitatea lantzeko tailerrak dira. Horrez gain, beste funtzio partikular batzuk ere badiutze behar den kasuetan: bertsogintzan trebatzea. Baina uste dut, horra iritsi gabe, batez ere zaletasuna zabalduz hizkuntzaren kontzientzia eta kalitatea lantzeko lekuak direla. Azken finean, pertsona horiek izan daitezen beren herrian hizkuntza aurrera eramango duten motorrak, horren behar gorrian gaude-eta. Hori da bertso eskolen sarea aktibatze, sustatzeko eta laguntzeko nire motibazioa.

### **Bertsoa, jolasa, sorkuntza... Zer da zuretzat sormena eta nola ulertzen edo definitzen duzu?**

Definizioz eztabaidagarria den kontzeptua iruditzen zait, nahiz eta hori den nagusituta dagoena. Nik birziklapen bezala gehiago ikusten dut. Sormena noiz gertatzen da, intuizio hutsetik eta ezerezetik zerbait sortzen duzunean, ala barruan daukazu zerbait hartu, horrekin jolasean ibili, transformatu eta birziklatzen duzunean? Antzeko gauzak dira, baina ñabardura bat markatzeko, nik birziklapen bezala

ulertzen dut.

Sormena birziklapenetik hasten da batez ere, memoria eta irudimenaren konbinazioa da. Eta irudimena zer da, irudimen hutsa ala zure baitan almagatuta dagoen guztitik edo memoriaren hutsuneetatik ere aktibatzen den jolasa? Sormenaren edo jolasaren bi hariak memoria eta irudimena dira. Eta gero, noski, kezka, sentsibilitatea eta zerbait esan nahia.

Memoriaren eta irudimenaren arteko jolas gisa ikusten dut sormena, eta hori dena lehengotik erakutsiz, lehengotik erakutsitakoa puskatzen erakutsiz, hutsuneak utziz, hutsune horiek betez, eta, ahal bada, ikara erantziz. Ondo egin nahia beharrezko ardatza da, zerbait eder, polit eta grazizkoa egitea, baina baita gaizki egitearen ikara galtzea ere.

Bertsoaren kasuan, hizkuntza bat transmititzen ari zaren momentutik memoria zaku oso bat transmititzen ari zara, zabalik, erabilgarri eta puskatzeko prest dagoena, eta puskatzeko prest dagoen neurrian, irudimenari bide ematen ari zara. Eta memoriaren eta irudimenaren motorra jolasa da: errima bera hitzen jolasa da, oihartzun musikal bat duen errima bilatzea lehendabizi belarrira egiten duen efektua bilatzea da, eta gero dator ideia edo esanahi baten bila joatea.

### **Iparraldearen eta Hegoaldearen artean desberdintasunik ikusten al duzu transmisioaren alorrean?**

Desberdintasun nagusia hezkuntzan nagusi den hizkuntza eremuan dago. Hegoaldeko Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan behintzat euskarazko eredia ikasten dute haur gehienek. Eredu horretan zenbateraino transmititzen den beste puntu sakon bat da, baina behintzat hortan da. Iparraldeko kasuan hezkuntzan minoritarioa da hizkuntza eredu horretan ikasten duen ikasleria. Alegia, murgiltzea ikastolan bakarrik eskaintzen da. Hemen eskola publikoan ez da murgiltzerik ematen, elebitasun nahiko desorekatua da dagoena eta nik ez daukat fede handirik elebitasun horren efikaziarekin. Guraso asko-

“Bertso eskolak, zaletasuna transmitituz, hizkuntzaren kontzientzia eta kalitatea lantzeko tailerrak dira”

“Migranteentzat ikusgarria den muga euskaldunontzat normalean zabalik dago, baina pareta kultural handi bat dago”

“Badirudi euskaraz ikastea eskatzen ari garenean erradikal hutsak garela, baina mundu guztian gertatzen den gauzarik sinpleena eta naturalena esaten ari gara”

“Erdal curriculumak eta azterketak hor daude, baina gure herriari, gure kulturari eta gure hizkuntzari lotutako parametroak ez genituzke ahaztu behar”



ren borondate ona ez dut askotan zalantzan jartzen, baina uste dut ez dela efikaza eta gure buruari gezur bat sartzen ari garela.

Ikastolan ere zailtasun handiak daude ikasleak hizkuntza maila minimoarekin ateratzeko. Alegia, hizkuntza horretan bizitzeko hautua egingo duen pertsonak hizkuntza horretan bere burua defenditzeko eta bere buruarekin gozatzeko corpus minimo bat behar du, bai hizkuntzaren esparru formaletan, informaletan, umorean, haserrean... Gorputzaldi guztiei erantzuten dien hizkuntza bat. Eta ikastolatik ateratzen diren ikasleen artean ere gero eta hizkuntza maila apalagoa dela esatea ez da ezer berria. Ez dut ikerketen beharrik, nahikoa dut belarria arrimatzea. Iparraldean komeria handiak daude; hizkuntzaren epe hurbilerako biziraupen minimoki jasangarri eta bizigarria zalantzan ikusten dut. Beti egongo gara mundutxo bat, noski, egoskorak gara eta, gainera, umore onez

bizi gara. Baina masa bat...

Hegoaldean ere antzeko arazoak daudela uste dut, proportzio diferentziekin. Lekuz leku ere asko aldatzen da Iparraldean zein Hegoaldean, baina Iparraldeko lekurik euskaldunena ere ezin da konparatu Hegoaldeko lekurik euskaldunena-rekin. Hegoaldeko herri batzuetan arnasa hartzen duzu; hemen herririk euskaldunenean ere arnasestuka zabilta. Hori da errealitatea.

Beti mezu baikorrak eman behar dira, esperantzari ez zaiola leihorik itxi behar uste dut, baina errealitateari begia ixtea eta mezu positiboa ematea egin litekeen gauzarik ezkorrena dela iruditzen zait. Gaixo larri bat katarro bat daukan bat bezala tratatzen ari garela uste dut.

**Egoeraz gaindi, nola ikusten duzu Iparraldeko eta Hegoaldeko herri-tarren arteko lotura eta harremana? Zu batean zein bestean ibiltzen zara, are gehiago bertsolari jardunean. Ohikoa da ala salbuspena?**

Nik familiatik eduki dut mugaz bi aldeetan etxean bezala eta babestua sentitzeko zortea eta bertsolaritzak bide hori gehiago zabaldu dit. Baina hori ez da ohikoa. Orokorrean migranteentzat ikusgarria den muga euskaldunontzat normalean zabalik dago, baina pareta kultural handi bat dago eta distantziak geografikoak gaindikoak dira. Gainera, pandemiak izugarriko kolpea eman dio lehen ere handia zen distantzia horri eta gure harremanak ez dira guk nahiko genukeen bezain joriak.

Bakoitza alde banatara begira bizi garela uste dut. Garai batean bezala, militantziaz norberak ez baldin badu barne turismoa praktikatzen etxean eta hurrei transmititu, hurbilago bizi gara Londresetik mugaz beste aldeko auzotik baino, Ryanairrek zabaldu digun munduko mapa berriarekin. Hurbilekoa nahiko urrun gelditzen ari zaigu.

Badaude trukeak eta harremanak bultzatzeko ekimenak, baina niri, adibidez, liburuarekin eta

migrazioaren kontuarekin eskole-tan eta ikastoletan ibiltzea tokatu zaidanean, historia nire sorlekutik kokatu diet, Hendaia: hendaia-rra naiz eta Hendaia ematen dio abiapuntua historiari. Hasieran halako test sutil bat egiten diet Irun eta Hendaia nola kokatzen dituzten jakiteko, ea Euskal Herriaren mapa buruan duten ikusteko... Izan ditut sorpresa onak, baina orokorrean gaur egun euskaraz ikasten duten ikasle askoren burutan ez dago oso ondo marraztua Euskal Herriko mapa, probintzien kokapena eta Euskal Herriaren kontzientzia.

Eta horrek lotura zuzena du ba-koitzaren nortasunarekin. Garaiak aldatu dira eta gaur egungo ikasleak nortasun errezeta oso diferenteak ditu eta nortasun desberdinak egosten dira. Gure garaian igual argiegi zeuden, argi eta sinple egia esan, eta zurrun. Orain justu diferentea da, konplexua da.

Nortasuna lur baten kontzientzia-tik errotzen has daiteke eta lur hori niretzat transmisio kulturala, kantu-gintza, bertsoa... da. Azken batean, identifikatzen zaren mundutxo.

Gaur egun, identifikatzen zaren mundutxo hori hain da diferentea eta hainbeste inputetatik hainbeste gauza sartzen dira...

Ez nau kezkatzen pertsona bat zer sentitzen den bere baitan, hori bere libertatea da eta askotan bere hezkuntzaren eta jaso duenaren ondorio eta filtro pertsonaletatik pasata bere baitan egosten dena da. Baina guk gure lehengo nortasun zurrunen maparekin nahikoa lan baldin bageneukan hizkuntzaren hariari eusteko, pentsa orain gaur egungo konplexutasunaren barruan.

### **Seaskan ibilia zara. Bizitzan baliagarri izan zaizkizun zer erreminta jaso zenituen ikastolako urteetan?**

Hizkuntza etxetik jaso genuen, hizkuntzaren kontzientzia, gustua eta Euskal Herriaren mapa ere bai. Eta ikastolan hori sozialki identifikatuta sentitu nuen. Gure garaian Seaska oso minoritarioa eta bazterrekoa zen, eta gainera, markatua. Nik ikastolan lagun talde bat eta familia bat aurkitu nituen eta haiekin so-

zialki identifikatu nintzen. Eta hori ere beharrezkoa da.

Horrez gain, bizi guztian iraun didan lagunartea eman zidan, lagunetatik eta gelakideetatik hasi eta irakasleetaraino. Orduan gure irakasle izan zirentzat beren bizitzako desafioa zen euskarazko irakaskuntza eta ikastola aurrera ateratzea eta askotan elkarrekin geunden gelan, ikastolatik kanpo eta asteburutako mila antolakuntza, festa, mobilizazio eta gorabeheretan. Oso konplizitate trinkoa zegoen.

Hendaia-ko ikastolatik Kanboko kolegiara joan nintzen 10 urterekin eta handik Baionako lizeora ondoren. Kanboko Iparraldeko kolegio bakarra zen orduan eta xiberotarrak, baxenabartarrak eta lapurtarrak elkartzen ginen. Hendaia-tik Eskiularaino kabitzen ziren denak han ginen. Eta horrek euskalkien musikaltasun oso bat ekarri zidan belarran eta Iparraldeko izatearen sentimendua garatu zitzaidan han. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako geografia kultural eta linguistikokoaren parte naiz ikastolei esker.

Irakasleek jakin-mina, interesa eta kezka transmititu zizkiguten. Eta ez hori bakarrik, jakin-minaren bidean ibiltzeko makuluak ere eman zizkiguten.

### **Zein izan ziren makulu haiek?**

Makulu bat hizkuntzak izan ziren. Guri ikastolan euskaraz gain beste hiru makulu linguistiko eman zizkiguten, frantsesarena, ingelesarena eta gaztelaniarena. Uste dut beste eskola elebidunetan inon ez dela ikastoletan bezainbeste makulu eman hizkuntza aldetik.

Beste makulu bat geografiaren kontzientzia izan zen, lehen aipatu bezala. Eta baita interes eta gustu kulturalak ere. Kantuan egiten genuen, pastoralak, antzerkiak... dinamismo kultural handia zegoen.

### **Gaur egun zer eskatzen diozu hezkuntzari orokorrean eta guraso gisa?**

Gure herrian hezkuntza publikoan eta ez publikoan euskaraz txukun antzean erakustea eskatzen diot

hezkuntzari. Ez da hezkuntzaren lana bakarrik, eta errealtate oso ezberdinak existitzen dira, baina beste indar bat egin beharko litzateke. Badirudi gauzarik normalena esaten ari garenean erradikal hutsak garela, baina mundu guztian gertatzen den gauzarik sinpleena eta naturalena esaten ari gara. Ohituta gaude, baina euskaldunok mutilatuta bezla bizi gara. Eta hain gaude ohituta mutilazio horretara, kasik ez garela konturatu ere egiten mutilatuta gaudenik ere.

Euskal Herrian denek euskaraz ikasi beharko lukete, denek maila minimo batean. Beste erdal hizkuntzak, nahi ala ez, denok ikasten ditugu, ez baldin bada gogo onez, bortxaz.

Gure kasuan guraso gisa etxetik irakasten diegu euskaraz bizitzen eta horretan lagun diezaien eskatzen diot ikastolari, hizkuntza babes dezaten, euskaraz bizitzen lagun diezaien, hizkuntzaren kontzientzia hartzen lagun diezaien eta Euskal Herriaren mapa eman diezaien. Hori da gehien eskatzen diodana.

Badakit erdal curriculumak eta azterketak hor daudela eta ulertzen dut irakasleen ikuspegitik eta hezkuntza sistema moldatzen duen erakunde baten ikuspegitik beharrezkoa dela horretarako prestatzea, gero ikasle horiek markatzen dizkieten parametroetan defenda daitezen. Baina horiez aparte, nik neure buruari markatzen dizkiodan parametroak gure herriari, gure kulturari eta gure hezkuntzari lotutakoak dira, eta uste dut hori ez genukeela ahaztu behar.

Ikastolako eremu barruan hizkuntzaren erabilera askoz gehiago blindatu beharko litzateke. Zeren bestela, murgiltze sistema deitu arren, praktikan ez da hala gelatik atera eta beste hizkuntza bat nagusi baldin bada. Badakit ez dela erraza, baina ezin dugu galdu guretzat minimoki bizigarria den paisaia hori, bestela ez goaz ondo.

Gehiago eskatzen hasita, bistan da baxoa eta brebeta euskaraz egin behar ditugula, baina azterketak euskaraz pasatzea bezain garrantzitsua da ikastola eguna euskaraz pasatzea.

# ESPERIENTZIAK

GASTEIZKO SAN MARTIN ESKOLA PUBLIKOA

---

## Premia berezietatik abiatutako egokitzapenak denentzat direnean

Pospoloaren lehen txinpartak nahikoa indar baldin badu, su hartuko du; indar gutxitxo baldin badu, ordea, itzali egingo da. Gasteizko San Martin ikastetxeko Haur Hezkuntzako umeei txinparta indartsua eskaintzen diete hezitzaileek. Inklusioa helburu, Hezkuntza Premia Bereziko ikasleentzat egindako egokitzapenak eta moldaketak denentzat egokiak direla konturatu dira, eta Ikaskuntza Diseinu Unibertsala dute oinarritzat. Metodologia hori STEAM gaitasunekin, robotikarekin, metakognizioarekin, genero ikuspegiarekin eta inklusioarekin uztartzen dute eguneroko jardunean.


**G**asteizko San Martin auzoan adineko jende asko bizi den arren, etorkinen seme-alabek auzoa gaztetu dute, eta auzoko Haur eta Lehen Hezkuntzako San Martin ikastetxean biltzen dira, Zabalganatik, Salburuatik eta inguruko beste auzoetatik datozen umeekin batera. Eskolan aniztasun handia dago, etorkin asko ditu, eta baita Hezkuntza Premia Bereziko ikasle ugari ere. Ikasleen joan-etorriak ere ohikoak dira, eta horrek are koloretsuago eta anitzago egiten du ikastetxea. Orain arte, bi lerro izan ditu, nahiz eta jaiotze tasaren beherakadaren eraginez gutxitzeko joera hartzen ari den. 3. mailara arte, D ereduan ikasten dute; izan ere, urtez urte eta mailaz maila B ereduari lekukoa hartzen ari zaio.

Aniztasun eta mugimendu handiko ikastetxea da San Martin, eta horrek lan egiteko modua egokitzera eta eraldatzera eraman

zituena. Ikasteko modu desberdinak daudela abiapuntutzat hartuta, 2018/2019 ikasturtean hasi ziren metodologia berritzen Haur Hezkuntzan, eta une honetan ikasteko modu askotarikoak eskaintzen dizkiete ikasleei. Enara San Martin ikasketaburu eta STEAM proiektuaren Haur Hezkuntzako koordinatzaileak azaltzen duenaren arabera, “Hezkuntza Premia Bereziko ikasle asko ditugu, eta haiek ikaskuntza prozesua besteekin batera egiteko eta jarraitzeko xedez, egokitzapenak egiten hasi ginen, jarduerak eta materialak bakoitzaren ezaugarrietara moldatuz. Baina berehala konturatu ginen egokitzapen horiek guztientzat balio dutela. Hau da, ikasle batek zailtasunak baldin badauzka eskuekin gauzak hartzeko, pintza bat erabili dezake. Baina ikasle horrek ez ezik, gainerakoek ere erabili dezakete. Beraz, eskaintzen ditugun aukerek, materialek eta baliabideek denentzat balio dute”.

tzat balio dute”.

*Ikaskuntza Diseinu Unibertsala* deitzen zaio ikuspegi horri, eta, San Martin ikasketaburuak dioenez, arkitekturatik datorren lan egiteko filosofia bat da: “Filosofia horren sortzaileak arkitekturan aldaketak egiten hasi ziren, irisgarritasuna lortzeko. Esate baterako, mugitzeko arazoak zituzten pertsonentzat, eskaileren ordez arrapalak jartzen hasi ziren. Baina mugikortasun arazoak dituztenentzat ez ezik, beste edozein pertsonarentzat izan daiteke arrapala eskailera baino egokiagoa: erosketekin doan norbaitentzat, hanka hautsi duen norbaitentzat, erosoago suertatzen zaionarentzat... Ideia hori hezkuntzara eraman denean sortu da *Ikaskuntza Diseinu Unibertsala* kontzeptua. Beraz, gurera ekarrita, lanak prestatzerakoan guztientzat prestatzen ditugu. Entzumen urritasuna duen ikasle batentzat material bat prestatzen baldin



badugu, zergatik ezin dute ume guztiak erabili? Akaso egun batean hotzeriagatik belarriak itxita edukiko ditu beste edozein ikaslek, eta hari ere oso ondo etorriko zaio egokitutako materiala, entzumenetik sartu ordez ikusmenetik sartzen dena. Guztiei etortzen zaie ondo. Beraz, materialak ez ditugu premia bereziak dituzten umeentzat soilik moldatzen, guztientzat baizik”. Horregatik, begietatik, usaimenetik, dastamenetik, ukimenetik eta entzumenetik sartzeko pentsatzen eta moldatzen dituzte edukiak. Zentzumen guztiak erabiltzen dituzte ikasleei eskaintzen dizkieten jardueretan, eta horrek ahalbidetzen du une batean ipuin bat entzunez jasotzea, belarritik, edo irudiak ikusiz jarraitzea.

*Ikaskuntzako Diseinu Unibertsala* gidari hartuta, hainbat baliabide erabiltzen dituzte: piktogramak, zeinu hizkuntza, materialak egokitztea irakasleen ezaugarri espezifikoaren arabera... “Eta horrela, modu batera edo bestera, denek jasotzea eta ikastea bilatzen dugu”. Piktogramak asko erabiltzen dituzte San Martin eskolan, eta oso tresna

lagungarriak direla dio ikasketaburuak. “Haur Hezkuntzako umeek ez dakite irakurtzen, eta zentzumen guztietatik iritsi behar zaie ikasi behar dutena edo edukia. Gure zeregina eduki hori ikusmenetik, usaimenetik, dastamenetik, ukimenetik eta entzumenetik nola sartu asmatzea da. Modu batera edo bestera, iristea. Orduan, piktogramen bitartez ipuin bat edo eguneroko errutinak hitzen bidez eta marrazkien bidez adierazten ditugu. Ume bakoitzaren gaitasunen arabera, batzuek hitzei soilik erreparatuko diete, eta beste batzuek, irakurtzen ez baldin badakite, marrazkiei begiratuko diete. Piktogramak ahoz gorako adierazpenekin azaltzen ditugu, bai guk eta bai beraiek hitz eginez. Horrela, ahozkotatzea eta euskara lantzen ditugu, eta kanpotik euskara jakin gabe etortzen diren ikasleentzat oso egokia da”.

Eguneroko errutinak piktogramen bitartez adierazten hasi zirenean, ikasle baten behar espezifikoengatik egin zuten. Baina ohartu dira gainerako ikasleei ere segurtasuna ematen diela eta denek baliatzen duten euskarria dela.

### STEAM gaitasunen lanketa

San Martin eskolako beste zutarrrietako bat STEAM gaitasunen lanketa da. “Metodologia aldaketa-rekin hasi ginenean erabaki genuen STEAM gaitasunak lantzea. Zientzia, Teknologia, Artea eta Matematika arloetako gaitasunak pizten saiatzen gara, eta baita robotikako hastapenak egiten ere”. Ikerketa zientifikoa eta teknologikoa ardatz

**“Premia bereziren bat duen ikasle batentzat prestatutako materiala denek erabili dezakete, hori da *Ikaskuntza Diseinu Unibertsala*”**

**Enara San Martin Ikasketaburu eta STEAM proiektuaren HHko koordinatzailea**

duzen proiektuak bultzatzen dituzte arlo horiek lantzeko. Eta Haur Hezkuntzan, lanketa horretarako abiapuntua jolasa eta gorputza dira. “Gorputzarekin kokatu behar dute espazioan, nor bere gorputzarekin sentitu behar ditu gauzak, gorputzean eta gorputzarekin bizitu ondoren errazago iristen baita abstrakzio mailara”, dio San Martinek.

Horrexegatik, matematika manipulatioa lantzen dute, dena eskuekin eta gorputzarekin ukituz, neurtuz eta kalkulatu. “Esate baterako, Gaudiren gaia landu genuenean, etxe bat egin behar genuen. Aurrean, lurrian plano bat egin genuen, eta neurtzeko eskuak eta esne kutzak erabili genituen. Gero, altuera neurtu genuen, ondoren etxea eraikitzen. Neurketa horietan konturatu ziren, adibidez, 8 esne kutxa eta 16 esku neurtzen zituela planoaren alde batek; esne kutxa baino esku gehiago. Zergatik? Esne kutzak handiagoak direlako. Segun eta zerekin neurtzen den, neurri bat edo beste izango du; ondorio edo logika horretara iritsi ziren beraiek bakarrik. Esperimentatuz, ukituz eta neurtuz konturatzen dira, eta hori da benetan balio duena”.

Beste proiektu batean, begia, ikusmena eta argia lantzen aritu ziren. Galdera egokiak eginez

egiaztatzen aukera ireki zitzaion. “Zer behar duzue ikusteko?” galdetu zien San Martinek. “Argia” erantzun zuten. Jarraian, gelako pertsonak jaitsi zituen, eta ume guztiak irekitzeko eskatzen hasi ziren, ez zutela ezer ikusten-eta. Orduan jabetu ziren, begiak ez ezik argia ere behar dela ikusteko. “Pentsamendu zientifikoa lantzeko modu bat da. Nik banekien ondorio horretara iritsi nahi nuela, baina nola? Hori da guk landu eta eskaini behar dieguna, galderak eginez eta esperimendatzeko aukera eman horra iristeko bidea eskaini behar diegu. Eta beti jolasatuz, ilusio puntuarekin bihotzeraino iristeko”.

Sorpresa batekin, egin duten zerbaitekin edo pasa den zerbaitekin abiatzen dituzte beti proiektuak, ilusioa pizteko balio dezan eta erakargarria izan dadin. “Ez bada erakargarria edo umeek ez baldin badute gustuko, utzi eta beste proiektu batekin hasten gara. Helburuak argi ditugu, beraz, bide batek ez baldin badu funtzionatzen, beste bide batetik iritsi gaitezke. Hezkuntzak malgua izan behar du”. Badakite matematika manipulatioaren bitartez zer landu nahi duten, irakurketan eta idazketan zer ikastea nahi duten, pentsamendu zientifikoa nola landu nahi duten... Beraz, hori guztia

umeei interesatzen zaien gaien bidez lantzen dute. “Haurrei galdezen diegu zer interesatzen zaien, zer gustatzen zaien edota zer gai landu nahi duten. Esate baterako, Egipto lantzea eskatu dute ikasurte honetan, eta harrituta geratu ginen, ez baita gertuko leku bat”. Beste batean, ume bati betaurrekoak jarri zizkioten, eta aitzakia hori baliatu zuten ikusmena eta gorputza lantzeko. “Dinosauroen gaia sorpresa batekin hasi genuen. Arrautza erraldoi bat agertu zen eskolan, eta ume guztiak, harrituta, galderak egiten hasi ziren: norena izango da arrautza? Nolatan agertu da hemen? Zer egongo da barruan? Non egongo da arrautza jarri duena?... Hurrengo egunean, oinatzak agertu ziren, eta galdera gehiago sortu zitzaizkien”, gogoratu du San Martinek. “Hipotesiak eginez pentsamendu zientifikoa lantzen dute, eta, bidez batez, kuriositatea lantzeko eta magiarekin jolasteko aukera izaten dute”.

Lanketa horretan, metakognizioaren alderdia ere lantzen dute. “Hasieran, panel bat jartzen dugu, gai baten inguruan zer dakigun idazteko. Ondoren, ‘zer ikasi nahi dugu’ atalean, euren intereseko puntuak zerrendatzen dituzte. Proiektua garatu ahala, hipotesiak planteatzen dituzte, egiaztatzeak egiten eta ondorioak ateratzen. Horrekin, panela osatzen joaten gara hitzekin eta marrazkiekin, ikasitakoa han idatziz eta marraztuz. Amaieran, panelari begiratu, ikasitako guztiaren errepaso egiten dugu. Marrazkiak ikusiz, zer ikasi duten kontatzen dute, eta, modu horretara, hizkuntza lantzen dute”. Orain, beste urrats bat eman dute, eta galdera bat gehiago planteatzen diete amaieran: gustatu zaizue? Emozionatu zaituztete? Horrek emozioez, sentimenduez eta bizipenez hitz egiteko aukera ematen die.

### **Inklusioa eta generoa ardatz**

Hezkuntza Premia Bereziko umeen egoerak proiektuaren barruan lantzen saiatzen dira San Martinen, denen parte-hartzea eta inklusioa





lortzeko xedez. “Lehen aipatu dut ume bati betaurrekoak jarri zizkiotela eta, hori aitzakiatzat hartuta, ikusmena eta gorputza lantzeko proiektu bat prestatu genuela. Proiektuaren barruan, egoera jakin bat landu genuen”, kontatzen du San Martinek. “Ume horrek ez zuen ondo ikusten, eta, horren ondorioz, asko gerturatzen zen besteengana. Gainerakoak beldurtu egiten ziren hurbilpen horrekin. Orduan, begia landu genuenean, oso ondo etorri zen egin genuen dinamika bat: maskarak egin genituen, zulotxo txiki batekin, eta horiek jantzita ibili behar zuten gelan. Ez zutela ezer ikusten konturatu ziren. Maskara erantzi gabe, hainbat ariketa egin genituen, eta, amaitzeko, binaka jarri ziren, bat maskara erantzita eta bestea jantzia. Erantzita zeukanak ikusten ez zuena gidatu behar zuen. Ariketa bukatu ondoren nola sentitu ziren galdetu genien, eta maskararekin egon ziren askok beldurtu egin zirela esan zuten, ez zutelako ikusten. Orduan ulertu zuten premia bereziko umea ez zela gerturatzen beraiengana haiek beldurtzeko, baizik eta ez zuelako ondo ikusten eta batzuetan gaizki sentitzen zelako. Handik aurrera harekiko harremana pila bat aldatu zen. Horrelako ekintzek inklusioa lortzeko balio dute”.

Inklusioaren lanketaren barruan kokatzen dute genero ikuspegia ere. Hain zuzen ere, 2020-2021 ikasturtean STEAM Euskadi Sarietan 1. saria eskuratu zuten genero ikuspegiaren kategorian. “Gure ikastetxean, erlijio asko ditugu, eta emakumeen egoeran eragina dute. Emakumearen paperari garrantzi handia ematen diogu, emakume guztienari”, dio San Martinek, azken bi hitzak azpimarratuz. “Berdintasuna bai, baina guztiona. Inklusioa bai, baina guztiona. Berdintasuna ez da neska edo mutila, baizik eta orokorra. Guk guztion inklusioa lantzen dugu, denok egon behar dugulako ikusgai. Ikuspegi horretan kokatuta egiten dugulan, eta horrek hausnarketa handia sortu omen zuen STEAM sarien epaimahaikideen artean”.

Proiektu guztietan, Artearen alderdia artista batekin lantzen dute, eta emakumeak aukeratzen saiatzen dira. “Oso gogoan dut Frida landu genueneko. Asko gustatu zitzairen, eta sentimenduz asko hitz egiteko aukera eman zigun”. Eguneroko gertakariak ere gaia lantzeko aukera ematen dute, eta hori baliatzea probestu behar da, San Martinen iritziak. “Unibertsoko gaia lantzen ari ginenean, esate baterako, albiste bat irakurri genuen: emakume astronauten lehenengo taldeak espaziora bidaia egin behar

zuen. Talde osoa emakumez osatuta zegoelako zen albiste, eta arazo bat izan zutelako: emakume bakar batentzat soilik zegoen astronauta jantzia, gainerakoak oso handiak ziren. Umeak segituan hasi ziren esaten jantzi gehiago erosi zitzaizketela, baina oso jantzi bereziak direla azaldu genien eta ezin direla edozein dendatan erosi. Egoera oso bidegabea iruditu zitzairen, eta berria moztu, zatitu eta ikasi egin zuten, eta beste gela batzuetara joan ziren kontatzera. Jantzirik ez zegoelako joan gabe geratzea oso gaizki iruditzen zitzaizela kontatu zuten beste geletan, ez baitzuten ulertzen. Horrelako gauzak ekartzen ditugu gelara”.

Horrek guztiak adi egotea eskatzen die hezitzaileei: umeen beharrei adi, umeen interesei erne, eguneroko gertakariari so, eta helburuak eta edukiak argi. Horrelaxe daude San Martin ikastetxeko hezitzaileak, badakitelako hori dela umeek jolastuz eta gustura ikasteko modua, emoziozko bidea. “Emozionatu dezaketen detaile txikiei adi gaude, emozionatuta baldin bazaude hobeto ikasten duzulako”. Eta hori ez dio umeengatik soilik, baita hezitzaileengatik ere. “Izugarria da umeak “ene!” esanez ikustea. Horrela lan egitea askoz ere zirragarriago da hezitzaileontzat”.

# EKARPENAK

ESKER ONEZ

---

## Agurra

Agurtzeko modu ugari daude, unearren, egoeraren eta norberaren baitan denak ere. Ikastola bateko idazkariak erretiroa hartu du eta honelaxe agurtu da lankideekin eta ingurukoekin.

*...orain entzungo duzun hau..."*

1976an heldu nintzen geltoki honetara  
eta 2022an beste geltoki baterako txartela hartu dut.

*"zuretzako, ilargia lapurtuko nuke gauero..."*

"Herria da gorputza, hizkuntza bihotza" lelopean hasi eta hazi izan zara.  
Eta bihotzak isuritako odolak elikatu du gorputza, herria alegia,  
eta hor dihardute gurasoek, langileek eta ikasleek,  
Euskal Herrian euskaraz ozen oihukatuz lau haizetara.

Maitatua izan zara eta gorrotatua,  
solidarioa omen zara eta baztertzailea,  
goxo zein gori, feminista zein segregazionista,  
plazaleku edo zezen plaza.  
Baina ereindako haziak ez du fruitu lehorrik eman,  
biziak baizik, hedatzen doan etorkizuneko ilusioa sendotzen,  
arraun eta amets!

*"... esperantzari leiho bat zabal omen diote..."*

Milaka lore tren txiki-txiki batean hurbildu zitzaizkigun  
eta tren handi batean norabide desberdinetara abiatu dira,  
bakoitzak bere bizi-motxila soinean duela,  
zalantza eta ilusioz betea, balentria eta beldurrez, desioz gainezka.  
Eta erro karratuak, fotosintesiak, Aresti, Shakespeare edo Cervantesek,  
koloreek, txiribueltak edo pilota partidak duten zamarekin.  
Haur etorri eta nerabe joan. Hor doaz, bakarrik eta libre,  
mundu justuago bat eraikitzeko esperantzarekin.  
Txantxangorriak dira, hegal egiten, hegal egiten, hegal egiten...

*“zin dagizut, ezin izango zaitudala ahaztu inoiz...”*

Etengabeko borrokarako hezituak izan ginen, bakoitza bere armekin.  
Geltoki honen atalaitatik ikusi izan zaituztet,  
bata bestearen atzetik ilusioz beterik.  
Pedagogia berritzailea, eraldaketa, hezkuntza sistema berria, konfiantza...  
hitzek osatu izan ohi dute zuen etengabeko jarduna.

Horiek dira zuen armak, elkarbizitzarako arma loretuak.

Batzuen etorrerari eta bertze batzuen irteteari nago so,  
maite izan zaituztet eta elkarrekin egin dugu barre, jolas eta solas, kantatu nola ez!  
Negar —gogoan dut zure zotin isila— elkarrekin,  
haserretu gara eta elkar besarkatu izan dugu.  
Eta atalaia txiki honetan izan zaituztedan bidaide, lankide, lagun,  
zuen laguntza eta babesa eskertu nahi dizkizuet.  
Nere izar betaurrekodunak.

*“...hala ere geldituko naiz, hala ere hau nere lurra da, hemen dago nere etxe bakarra...”*

Ene! Luzatu naiz berriro ere. Beti bezala, eskuak burua baino arinago.  
Lau lerro idatziko dizkiet. Hori nuen buruan eta horrekin batera  
“karta bat idatziko dut, norbaitek erantzun dezan”.  
Ez erantzunak jasotzeko desioz, ez noski!  
Gutun honen bukaeran denok elkarrekin habanera bat kantatzen irudikatzen nuelako baizik.

Ez ditzagun hitzak hutsik utzi, bete ditzagun emozioz.  
Hegorik ez ebaki, izan libre eta pozik bizi!

Besarkada bero bana denontzat eta bakoitzarentzat.

# EKARPENAK

HEZKUNTZA AKORDIOA

## Segregazioaz ari garenean, zertaz ari gara?

'Askotariko segregazioari nola egin aurre hezkuntza sistematik? Adostasunerako bide partekatu baterako oinarriak' izenburupean burutu zen ekainaren 4an Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako foroa. Donostiako Miraman jauregian segregazioaren aurkako ituna eta dekalogoia lantzeko lehen urratsa egin zen. Besteak beste, Xabier Aierdi soziologoa eta Begirune Fundazioaren sortzailea segregazioa definitzeko beharraz eta gaia lantzeko ezinbestekoak diren urratsez aritu zen.

**G**aur egun Euskal Herrian migrazio fluxu oso nabarmenean gaude. Gure gizarteak kaudimendu handiko eskakizuna dauka eta hurrengo urteetan migratzaileak etorri egingo dira, batez beste urteko 25.000 pertsona inguru. Etorkin gutxiago etorri diren bi edo hiru urte kritiko egon dira, baina gainerakoan goranzkoa izan da joera. 2020ko COVID-19aren pandemia garaiko lehen bi hilabeteetan 6.000 pertsona heldu ziren.

Migrazioarekin lotuta hiru biztanleria kolektibo bereiz daitezke: bertan jaioak baina atzerritar izaten jarraitzen dutenak; atzerrian jaioak eta oraindik atzerritar direnak; eta atzerrian jaioak eta dagoeneko nazionalizatuta daudenak. Oso ondo zenbatu behar da zer-nolako biztanleria dagoen immigratzaileen artean eta zer-nolako azpimultzoak dauden, seguruenik pedagogia desberdinak beharko dituztelako. Bertan jaio-takoek ibilbide lasaia egingo dute



**XABIER AIERDI**  
Soziologoa, EHUko irakasle  
jubilatua eta Begirune  
Fundazioaren sortzailea

hemengo hezkuntza sisteman. Atzerrian jaio eta jada nazionalizatu direnek ere ibilbidea ongi egiteko aukera handiagoa dute, baldin eta laguntza badute. Dena dela, atzerritik datozen guztietatik % 13 bakarrik pasako da eskolatik, eta ez da igaroko ez denbora guztian eta ezta beti ere. Horiek dira pobreenak, afrikarren seme-alabak direnez nazionalizatu gabe geratzen direlako.

Euskal Herrian, oro har, modu ez segregatuan banatzen da biztanleria, baina Gasteiz eta Bilbok bertako biztanleriarena baino immigratuen tasa handiagoa barnehartzen du. Argi ikusten da pobrezia urbanoa dela; hirietan metatzen da jendea eta kopuruak oso altuak dira. Horrekin batera, hirietan gertatzen da aberatsen deslokalizaziorik handiena ere. Globalizazioaren moduan, ahal dutenek euren seme-alabak deslokalizatu egiten dituzte eta autobusa hartu eta inguruko zentroetara eramaten dituzte. Eta pobeak, sustraiak dituztenen

moduan, euren auzoan geratzen dira. Benetan lupa handi bat ipini behar da hori dena ikusteko eta tokian tokiko neurriak hartzeko. Ekimen oso sakona eskatzen du ezinbestean.

Immigrazio baso handi bat dago gure gizartean. Dagoeneko zortzi pertsonatik bat kanpoan jaioa da edo bertan jaioa izan arren etorkin osagairen bat duena. Immigrazioa aztertzerakoan hiru zuhaitz handi sartzen dira tartean: errefuxiatuak, pasadizokoak eta lagundu gabeko adin txikiko atzerritarrak. Eta hiru zuhaitz handi horiek atzean dagoena ezkututzen dute. Izugarritzko gerizpea egiten diote atzean dagoen basoari; eskoletan dauden 50.000 neska-mutilei eta lan prekarioetan dauden 160.000 pertsonari. Elementu horiek eragina dute segregazioan.

Egoera ikusirik, immigrazioa berrizatu behar da eta berrezarpen horrek mesede egingo dio gure gizarteari, beste hainbat kontu ere zaharberritzeko.

### Kontzeptuak argitzen

Segregazioaz hitz egiten hasi aurretik, garrantzitsua da segregazioaz ulertzen duguna argitzea, sarritan kontzeptuak nahasteko joera izaten baita. Gizarte desberdintasunaren inguruko kezka dira segregazioarenak. Hau da, gizarte desberdintasuna da nagusi segregazioan.

Segregazioa eta aniztasuna ez dira nahastu behar. Aniztasun pobre batek edo zenbait sektore pobrek eragin dezakete segregazioan, baina bi kontu desberdin dira. Segregazioari ezin zaio aurre egin aniztasuna sustatuz. Aniztasuna eta homogeneitatea daude alde batean eta segregazioa eta desberdintasuna beste aldean. Kontzeptuen arteko mugak ez dira argiak, porotsuak baizik, eta seguruenik bati kasurik egiten ez baldin bazaio, besteari ere ez zaio egingo.

Askotariko segregazioez hitz egiten badugu zorabiatu egingo gara, benetako segregazioa bidean galtzeko arriskua egon daiteke. Eta benetako segregazioa klase sozialen artean sortzen dena da, hau da, gurasoek duten kapital metatuen arabera sortzen dena.

Segregazioa, kontzentrazioa eta eskola porrota ere nahastu izan dira. Kontuan hartzeko hiru elementu dira, elkarreragina izan dezaketena, baina analisi eta diagnostiko on bat egiteko bereizi egin behar dira. Badirudi kontzentrazioak saihetsezinak direla neurri handi batean, baina kontzentrazioak ez dira eskolakoak, sozialak baizik. Kontzentrazio sozialek antzeko pertsonak biltzen dituzte testuinguru geografiko jakin batean, eta antzeko pertsona horiek, gainera, intentsifikatu egiten dira immigrazio kasuetan. Izan ere, kontzentrazio horiek sortzen dira norbaitek bere arrebari deitu diolako eta horra etorri delako, adiskide batek beste bati esan diolako, ezagun batek beste bati esan diolako eta abar. Ondorioz, auzo etnikoak sortzen dira. Hori beti gertatu izan den fenomeno da; kontua da egoera horrek zenbat eragiten duen segregazioan, zenbatean izan daitekeen segregazio iturri.

Horrez gain, portaera sozial batzuk segregazioa areagotu dezakete, eta neurri politikoek ere segregazioa areagotu edo txikitu egin dezakete. Joko eremu horretan eskola bateko kontzentrazioa hilgarria izan daiteke, edota aukera bat.

### Proposamen zehatzak

Egoera ikusita, segregazioari aurre egiteko hainbat neurri har daitezke. Bata 2023rako Hezkuntza Akordioan aurreikusi den eskola segregazioaren aurkako ituna izango da. Horrez gain, ordea, beste neurri batzuk behar dira:

1. Lidertza garrantzia: politika instituzional bat behar da gizarteak egingo ez duena instituzioetatik egiteko. Gaur egungo dinamika sozioekonomiko guztiek segregazioa bultzatzen dute, eta beraz, bultzada instituzional handia behar da. Horrek neurriak hartzea eta aurrekontuak onartzea esan nahi du, biak hitz larriz.
2. Tresnak eta neurriak adostu: indize bat adostu behar da gaia bere osotasunean ongi lantzeko. Segregazioak ez du soilik borroka ideologiko bat izan behar. Aitzitik, eztabaidatu eta

**Itun bat behar da, herri proiektu gisa landu behar da gaia eta neurriak adostu; eta eskolak lagundu dezake segregazioaren aurka, bere neurrian.**

adostu dezagun zertaz ari garen, zein den benetako egoera eta mapa, eta ondoren aplikatu ditagun neurriak. Neurriak frogatuz joan ahala, indizea aldatu eta berrikusi egin beharko da.

Azken batean, neurri horiek helburu batekin hartu behar dira: ikasleak autobusetik jaitsi eta igogailura pasa daitezen eta igogailuan jarrai dezaten. Hori da hezkuntzak bermatu behar duena edo bermatzen saiatu behar duena — baldin eta bermatu baldin badaiteke —. 70-90eko hamarkadetan hiru salto erabakior gertatu ziren: aitona-amonak baserritar izatetik, gurasoak fabriketara joan ziren, eta seme-alabak unibertsitate heldu ziren edo ginen. Mugikortasun bat gertatu zen eta hori da finean orain erronka: hori errepikatu behar da orain, baina lan eremuak laguntzen ez duen testuinguruan. Gaur egun sektore segregatuek eta pobreek hezkuntza baino ez dute gorantz egiteko, igogailura igotzeko. Aberastasunak, errentak eta posizio sozialak gero eta gehiago markatzen dute belaunaldien arteko ezberdintasunaren transmisioa. Horregatik behar da bultzada instituzional askoz ere handiagoa eta hezkuntzaren ekarpena. Eskolak egin dezakeena egin dezake, ez gehiegi, baina lagundu dezake. Eskolak egin dezakeena egin behar du. Itun bat behar da eta herri proiektu gisa landu behar da gaia.

# AHALDUNTZE ESKOLA

TELEFONO MUGIKORREN ERABILERA

## Mugak beharrezkoak dira

Adituek gomendatzen dutena ez da betetzen eta garaia baino lehen uzten ditugu telefono mugikorrek haurren eta gaztetxoek eskuetan kasu askotan. Mugikorrek mendekotasuna sortzen du eta eragin kaltegarria izan dezake haurren eta gaztetxoek garapenean. Horren jakitun, gero eta gehiago dira seme-alabek mugikorra izateko adina atzeratzeko helburuz sortzen ari diren guraso taldeak. Korrontearen kontra abiatzen duten bidean elkarri babesa helarazteko eta esperientziak trukatzeko gune segurua dira talde horiek.

**T**elefono mugikorren erabilerak kezka handia sortzen du gurasoen artean. Eta galdera bera ibiltzen da askoren buruan bueltaka: noiz eta nola eman behar diegu mugikorra? Miren Rosek garbi du: ahalik eta beranduen, hobe. Ros familien bidelaguna da haurren heziketan eta kezka du mugikorraren erabilerarekin: “Oso erraz erabiltzen ditugu, oso erosoak dira eta gauza askotarako balio dute. Helduok ere ez dugu denborarik izan nolako tresna erabiltzen ari garen hausnartzeko eta seme-alabei eman dizkiegu haiengan zer eragin izan dezaketen pentsatu gabe”. 16 urte adin egokia izan liteke mugikorra izateko, Rosek dioenez: “Mugikorrek mendekotasuna sortzen du. Nerabezaroan neuronen arteko konexio berriak izaten dira, garunaren zati bat berreraikitzen ari da eta inpulstuen kontrola, planifikazioa eta arreta kudeatzea oso zaila da. Inpulstuen kontrolari dagokionez, garai horretan mugikorra ematea egin dezakegun okerreina da. Hormonak dantzan dituzte, nortasuna finkatzen ari dira, lagunarteko harremanak

eraikitzen... Eta horren guztiaren erdian pantaila bat sartzeak ez du inongo mesederik egiten. Gauzak gehiago nahasten dituela ikusten ari naiz”.

Mugikor propioa izateko adin egokia, 16 urte izan daiteke, beraz. Horrek ez du esan nahi ordura arte pantailarik ez dutenik ikusiko edo sare sozialetan ez direnik sartuko, baina gailu propioa izateko unea ahalik eta gehien atzeratzea, bide horretan heziketa lana egitea bezain garrantzitsua da eta lanketa hori gurasoekin egitea garrantzitsua da.

Oso nekeza da, eta guraso askori kosta egiten zaio horretan jartzea, ezjakintasunagatik edo mundu hau arrotzegia egiten zaielako. Behin adina finkatuta, mugikorra nola ematen zaien ere garrantzitsua dela azpimarratu du Rosek: “Nik opari gisa ez ematea aholkatzen dut. Opari gisa ematen badugu, ematen diogun pertsonak nahi duen erabilera egin dezake. Semeari edo alabari argi utzi behar zaio mugikorra tresna bat dela eta gurea dela. Gurasoek sinatu dugu kontratua, gurasoek ordaintzen dugu zerbi-



Rosek Zarautzen gurasoekin egindako tailerra.

tzua eta gurasoak gara seme-alabak egiten duen erabileraren erantzule. Gurea izateak, muga batzuk egotea dakar. Garrantzitsua da gurasoek jakitea seme-alabak zertan aritzen diren eta zer aplikazio erabiltzen dituzten”.

### Guraso taldeak

Ezjakintasunagatik, taldetik kanpo geratzearen beldurragatik eta kontrolatzeko tresna gisa edukitzeagatik jartzen dugu nagusiki mugikorra seme-alaben eskura. “Bakoitzak bere arrazoiak ditu. Guk ez dugu inor epaitu nahi eta errespetu handiz aritzen gara. Arazoa da zalantza duenak edota seme-alabei oraindik mugikorra erosi nahi ez dienak presio soziala sentitzen duela. Eta garrantzitsua da horrela sentitzen direnei lasaitasun mezua helaraztea eta egoera berean dagoen jende gehiago dagoela jakinaraztea”, dio Rosek. Hain zuzen ere, gero eta gehiago dira seme-alabei mugikorra ahalik eta beranduen emateko helburuz sortzen ari diren guraso taldeak. Duela hiru urte Zarautzen abiatutako esperientziak gero eta jarraitzaile gehiago ditu eta Usurbil, Tolosa, Durango, Zumaiia, Azpeitia, Leitza, Ultzamaldea, Gasteiz, Donostia, Pasaia, Mendaro, Antzuola, Ondarroa, Berriatua, Deba, Sopena... eta beste hainbat herri gehitzen doaz etengabe zerrendara. Interesa dutenak eta oraindik martxan jarri ez direnak ere mordoa dira.

Ohikoa izaten da DBHra pasatzerakoan mugikorra erostea eta guraso batzuen artean kezka sortzea nahikoa izaten da antolatzen hasteko. Rosek azaldu du nolakoa izaten den funtzionamendua: “Ikastetxe bakoitzean gaiari helduko dion talde eragileak sortzea komeni da. Talde eragilearen lehen egitekoa helburuak finkatzea da. Nagusia, mugikor propioa izateko adina atzeratzea izaten da eta ikastetxearen egoera zein den jakiteko mailaz mailako azterketa egitea komeni da. Demagun Lehen Hezkuntzako 6. mailan inork ez duela mugikorrik. Kasu horretan, gurasoei deialdia egiten diegu eta atzeratzeko asmoa zenbatek duten ikusten dugu.



Hilabete batzuen buruan berriz elkartzen gara egoera aldatu den ala ez jakiteko eta elkarren arteko babesa eta partekatzea sustatzeko”. Mailaz maila egiten dute azterketa eta mugikorrik ez duten gaztetxoek gurasoak maiztasunez biltzen dira egoera aztertzeke eta elkarri laguntza emateko. Zarauzko ikastolako adibidea jarri du Rosek: “Bilerak sarritan egiten ditugu: uda aurretik, Gabonen aurretik... Nola dauden eta konpromisoari eusten ote dioten ikusten dugu. Gaur egun LHko 6. mailan 4 gela dira eta 24 ume inguruk du mugikorra, % 30ek gutxi gorabehera. Gainerako gurasoei galdetuta, erantzun dutenen % 67 Gabonak arte ez erosteko prest daude. Pixkanaka joan behar dugu”.

Guraso taldeak ugaritzen ari direla ikusita oasi txiki bat ikusten du Rosek baina prozesua nekeza dela dio: “Jende askok kezka du eta hori positiboa da, baina gurasoek lan egiteko prest egon behar dute eta horretara animatu behar ditugu. Talde eragileak oso egoskorra izan behar du, hau iraupen-lasterketa bat da, emaitzak ez dira egun batetik bestera ikusten, bidea luzea da eta elkarri animoak ematea oso garrantzitsua da. Erabat sinetsi behar da egiten ari garen horretan eta talde eragilerik sortzen ez bada, ekimenak indarra galtzen du. Era berean,

garrantzitsua da kontzientzia hedatze aldera, ikastetxe osoak pausoak norabide berean eta aldi berean ematea”.

Gurasoek talde horietan sentitzen duten babesak berebiziko garrantzia du. Eta gaztetxoak ere lasaitzen dira mugikorra ez duten ikaskideak eta lagunak badirela ikusita.

Haurrek eta gazteek aisialdia pantailarekin lotzen dute, gero eta gehiago, eta beste hainbat gauza egiteari uzten diote pantaila aurrean egoteagatik. Nabarmena da frustrazioa kudeatzeko zailtasun handiak dituztela hatzak mugitze hutsarekin nahi dutena nahi dutenean izaten ohi diren direlako. Mugikorren kasuan, gurasoentzat ere desintoxikazio asteburuak gomendatzen ditu Rosek: “Ostiral gauean itzali eta igande gauera arte ez piztu. Gutxi egiten dute baina aparatu txiki hori ekuaziotik kenduta familia harremanak sendotu eta aberastu egiten dira”. Izan ere, funtsezkoa da eredu diren aldetik, gurasoek eurek egiten duten erabilera ere kontrolatzea.

Zailtasunak zailtasun, mezu baikorra botata amaitu du Rosek: “Komunitatean eta saretzean konfiantza dut. Aldaketa etorriko bada, hortik etorriko da. Bestela ezinezkoa izango da. Askotan esan izan digute utopia batean bizi garela, baina hain zuzen horretarako balio du utopiak: aurrera egiten jarraitzeko”.

# GALDEIDAZU

## ZER ERAKUTSI DIGU COVID-19AREN KONFINAMENDUAK ESKOLEN ETA UDALEN ARTEKO ELKARLANARI DAGOKIONEZ?

**2**020ko martxoan, COVID-19a zela-eta, hilabete batzuk iraungo zuen konfinamendua hasi zen. Ez dugu hemen azaldu behar denok badakiguna. Gogoratu dezagun soilik konfinamenduaren lehen bi asteak pasatu ondoren itxialdiak luze joko zuela konturatu zela gizartea, eta orduan, ikastetxeak eta irakasleak martxan jarri zirela, bakoitza bere moduan eta zituen baliabideak erabilita, hezkuntzaren eginkizunari jarraipena emateko.

Hilabete horietan, ikasle batzuek jada bizi zituzten desabantai-

lak areagotu egin ziren, eta, aldi berean, desberdinkeria horren kontzientzia azaleratu zen. Hezkuntzaren munduan, konturatu ginen ikasle guztiek ez zituztela baliabide berberak egoerari aurre egiteko eta ikasketak egiten jarraitzeko: familiaren baldintzak, etxebizitzaren ezaugarriak, tresna digitalak, ohiko tresnak... ez ziren berdinak denentzat.

Euskal gizartean, ekimen batzuk jarri ziren abian, eta, besteak beste, udal batzuek esku hartu zuten, hautemandako desabantailak hein batean konpentsatzeko. Testu



**MIREN BARANGUAN**  
Kulturartekotasuneko irakaslea, HUHEZIn



**JURDANA MARTIN**  
Hizkuntza irakaslea, HUHEZIn



**AMELIA BARQUÍN**  
Kulturartekotasuneko irakaslea, HUHEZIn



honetan, horietako batzuen berri eman nahiko genuke, hezkuntzaren munduko eragileoi hausnarketarako parada emango digutelakoan. Izan ere, Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo ikerketa-talde batek, *Arrakala* izenekoak (testu honen egileon taldeak, hain zuzen), hamabi udaletan egindako esku-hartzea aztertu zuen, egitasmoaren eragileei egindako elkarrizketen bidez. Hamabi udal horiek askotarikoak dira: EAEn (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan) zein Nafarroan daude, kolore politiko desberdinetakoak dira, koalizioan jardun dute batzuetan (PSE-EE, EAJ, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu) eta tamaina askotakoak dira (1.100 biztanletik 100.000 biztanlera). Kasu guztietan, motibazioa hauxe izan zen: egoera zaugarrian dauden umeen hezkuntza premiei berehalako eta ezohiko erantzuna ematea. Elkarrizketak 2020ko ekainean eta uztailan egin ziren. Azaroaren 25ean, bestalde, jardunaldi bat egin zen HUHEZIn, artikulu honen izenburua zeukana, udaletako eragileen ahotsa jasotzeko eta esperientzia horiek zabaltzeko.

Labur azalduko ditugu ekimenak. Izan ere, udalen eta irakasle zein familien arteko kolaborazio ildo batzuk partekatzea da testu honen asmoa, eta elkarlan hori posible dela agertzea; edota, udalei begira, premiak sortzen direnean, hezkuntza komunitateak ere propositiboak izan daitezkeela jabetzea.

### Udalen esku-hartzeak

Itxialdiak etxean ikastera behartu zituen ikasleak; hori dela eta, **zuzkidura teknologikoek** hartu zuten protagonismoa udalen interbentzioetan. Alde batetik, gailuei buruz hitz egin behar dugu: udal batzuek tabletak edo ordenagailuak jarri zituzten beharra zuten ikasleen eskura. Bestetik, gailu horien erabilera bermatzeko, konektibitatea eskaini zuten hainbat herritan: SIM txartelak, Internetarako sarbidea, herri batzuetan dagoen zuntza etxeetan baliatzea konexioa izateko...

Etxeetara iristeko moduak askotarikoak izan ziren, bestalde. Herri

batzuetan, udal langileek beraiek banatu zituzten etxez etxe ordenagailuak, eta baita erabiltzeko azalpenak eman ere. Beste batzuetan, irakasleen bitartez iritsi ziren tresnok ikasleengana.

Ekimen horietan, hainbat enpresa pribatuk, irabazi asmorik gabeko elkarteek edota kooperatibek lagundu zuten, eta ekarpena egin zuten udalak laguntza eske haiengana hurbildu zirenean: telekomunikazio-enpresa batek (bere zerbitzuak merkatuan baino merkeago eskaini zituen), supermerkatu-kate bateko denda batek (tabletak merkeago saldu zituen), gobernuz kanpoko erakunde batek (tabletak etxeetara eramane zituen)...

Lehenengo urratsa, beraz, ikasten jarraitzeko oztupoak zituzten ikasleak identifikatzea eta premia digitalei erantzutea izan zen. Hortik aurrera, beste premia batzuk hauteman ziren, eta horiei zuzendutako esku-hartzeak bideratu ziren.

Izan ere, hainbat ikaslek **eskola errefortzua** behar zutela identifikatu zuten herri batzuetan. Eskola errefortzu hori hizkuntzarekin zailtasunak zituzten eta etxean euskararen ezagutzarik ez zuten haur eta gaztetxo batzuei bideratutakoa izan zen gehienetan. Ahalegin sendoago bat behar zela hauteman zuten herrietan, boluntario-sareen bitartez erantzun zitzaien behar akademiko horiei. Kasu batean, udalaren bidez antolatu zen boluntarioen sarea; beste kasu batzuetan, bestelako kolektibo eta erakundeetan aritzen ziren boluntarioen bitartekaritza bideratu zen udaletik (herrietako boluntarioen sareak, Gurutze Gorria...). Herri jakin batean, akademia pribatu bat kontratatu zuen udalak, behar horiei erantzuteko.

Eskolekin batera, **jangelak** ere itxi ziren martxoan. Horrek eguerdiko otordua bermatzeko zailtasunak ekarri zituzten haur eta gaztetxo batzuei zenbait herritan, eta udal batzuek neurriak hartu zituzten: udal batek dirulaguntza-lerro bat sortu zuen garai horretarako; beste bat Caritasekin eta Elikagai Bankuarekin koordinatuta aritu zen, familiei

**Ikusi zen beharrezkoa zela udal eta ikastetxeen arteko harremana egotea (edo indartzea), egoera zaugarrian zeuden ikasle zein familiak identifikatzeko eta haur, gazte zein nerabeen hezkuntza prozesua eten edota oztopatu ez zedin.**

elikagaiak etxera helarazteko; beste batek ordura arteko kolaborazioari eutsi zion GKE batekin; beste batek Gurutze Gorriaren eta bi supermerkatuen laguntza lortu zuen... Aste batzuk pasatu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren neurriak etorri ziren, eta udaletakoak desaktibatu ziren.

Konfinamendua bera **arintzeko proposamen askotarikoak** ere izan ziren herrietan, eta gazteei eta haurrei zuzendutako jolas-ekimenak antolatu ziren udalen eta bestelako eragileen artean. Adibidez, herri bateko irradian, magazin berri bat sortu zuten, eta herriko erakunde batzuek hartu zuten parte (liburutegiak, museoak...) argitalpenean, haur eta gazteak entretenitzeko asmoz. Beste batean, bideoak sortu zituzten eskolaren eta hezkuntza ez-formalaren esparruan jolas-ekintzak bultzatzeko, eskulanak, besteak beste. Beste batean, Pirritx eta Porrotzek herrian zehar ibilbide bat egin zuten, haurrak entretenitu eta alaitzeko.

### Esku-hartzeen beste ezaugarri batzuk

Lehen esan bezala, udal bakoitzak bere erara kudeatu zituen ekimenak. Kasu askotan, udala izan zen ikastetxeetara hurbildu zena, ikasleen premiak ezagutzeko.

### Udal batzuetan, ekimenak ez ziren ikasturtera soilik mugatu. Eragileak konturatu ziren desabantaila egoerek udan ere jarraituko zutela, eta zerbait egin behar zutela.

Alderantzizkoa ere gertatu zen, ordea: ikastetxeak izatea udalera jo zutenak laguntza eske. Ikastetxe publikoak izan ziren batez ere, baina baita itunpekoak ere.

Udalen eta eskolen arteko harremana askotarikoa da berez, eta, horregatik, herri bakoitzak modu batean bizi edo garatu zuen elkarlana. Hainbatetan, harreman hori bazen konfinamendu aurretik ere, lankidetzaz esparru bat eta lan dinamika bat bazelako euren artean (adibidez, herri edo hiri hezitzaileen sareen kasuan). Beste zenbaitetan, harreman puntuala zuten udalek eta ikastetxeek (urtean zehar ekintza jakin batzuk antolatzen zituzten elkarrekin, esaterako). Beste herri batzuetan, azkenik, konfinamenduak abiapuntua jarri zion udalen eta eskolen arteko harremanari, eta aurrerantzean harreman horretan sakontzeko aukera ekarri zuen. **Modu batera edo bestera, etxealdiak, harremanari begira, ariketa kontzienteagoa egiteko bidean jarri zituen udalak eta ikastetxeak,** eta, elkarrizketa guztietan, harreman hori sendotu egin zela adierazi ziguten udaletako eragileek.

Herri batzuetan, eskolako zuzendaritzaren eta udalen arteko harremana zuzena eta gertukoa izan zen, eta, horren ondorioz, elkarrekin identifikatu eta kudeatu zituzten ikasleen premiak. Baina, hainbat kasutan, norbanakoak izan ziren udalera beren kabuz joan zirenak,

udalen laguntza-deialdien iragarpenak ikusita eta bitartekaririk gabe.

#### Zenbait gogoeta

Elkarrizketetan, eragileek gogoeta asko eskaini zituzten garatutako elkarlanaren inguruan, fokua hainbat alderditan jarrita.

Alde batetik, **beste erakunde eta instituzio batzuen esku-hartzea falta zela sumatu zuten.** Udalek erantzuna eman zuten, hein batean, hezkuntza administrazioak ez zela erantzun premia guztiei.

Bestalde, beste herri batzuetan aurrera eramandako **esku-hartzeak partekatze espazio-falta nabaritu zen,** udalez gaindiko espazio batena, non ekimenak, gogoetak eta esku-hartzeak azaldu eta partekatu ahal izango ziren beste batzuk “inspiratzeko”, elkarri laguntzeko, elkarri kontsultatzeko... Udalen arteko sareak izan arren, ez ziren erabili funtzio horrekin. Izan ere, iritzi orokor bat nagusitu zen: udal bakoitzak bururatu zitzaiona egin zuela, intuizioz, besteen berririk izan gabe maiz. Aldi berean, udal batzuek ez zuten ekimenik aurrera eraman, agian otu ez zitzaielako edo ez zituztelako ezagutzen beste leku batzuetan irekitzen ari ziren bideak. Hain zuzen ere, pandemia osteko gogoeta nagusietako bat izan zen **udalek hausnarketarako zein haien arteko harremanak sendotzeko beharra zutela** informazioa partekatze eta kolaborazioa elkarri eskaintzeko.

**Borondatea** eta interes pertsonal edo alderdikoirik gabeko asmoa izan zen esku-hartze hauen guztien jatorria. Eta ez soilik udalen aldetik; herritarren eta tokian tokiko eragileen arteko konplizitateak ere izan ziren: hainbat herritan elkarrekin sortu ziren, eta norbanakoek, boluntario-sare antolatuek, enpresa pribatu eta kooperatibek... kolaborazio-sareak sortu eta askotariko ekimenak jarri zituzten martxan, egoera konplexuotan ekarpen desinteresatu bat egiteko asmoz.

**Herriaren tamaina** kontuan hartzeko faktorea izan zen. Alde batetik, herri txikia izateak inplikazio hurbilagoa eta biztanleen

premiak hobeto ezagutzea dakartzu. Eta hala ere, hauteman gabeko egoera batzuk agerian geratu ziren garai horretan. Bestetik, baliabide gehiago daude herri handietan (giza baliabideak, besteak beste, eta baita korporazioan ere), eta neurriak eskaintzeko ahalmen handiagoa.

Ikusi zen, halaber, beharrezkoa zela **udal eta ikastetxeen arteko harremana** egotea (edo indartzea), egoera zaurgarrian zeuden ikasle zein familiak identifikatzeko eta haur, gazte zein nerabeen hezkuntza-prozesua eten edota oztopatu ez zedin. Hau da, ikastetxeetako geletatik harago zeuden beharren diagnostiko oso bat izatea. Izan ere, hezkuntzaren arloan gertatzen diren desberdinkerien kontzientzia garatu edota areagotu zen, baina ez soilik larrialdi-egoeretan gertatzen diren desberdinkerien kontzientzia.

Udal batzuetan, **ekimenak ez ziren ikasturtera soilik mugatu.** Hau da, eragileak konturatu ziren desabantaila egoerek udan ere jarraituko zutela, eta errealitate horri begira ere zerbait egin behar zutela. Adibidez, aisialdiko esparruetan jatorduak bermatzeko espazioak sortzeko aukera eman zuten udal batzuek.

Esan dezagun, azkenik, ikusi dela konfinamenduaren garaian udal batzuek bide berriak urratu dituztela eta prest agertu direla laguntza eta kolaborazioa eskaintzeko eta hautemandako hutsuneei erantzuteko, eta ikastetxeekin elkarlanean, desabantailan zeuden ikasleei laguntza eskaintzeko. Beste udal batzuk, berriz, proaktiboagoak izango ziren, agian, beste ingurune batzuetan egiten ari zena ezagutu izan balute edo haien arteko sareak eraginkorragoak izan balira. Dena dela, horrelako esperientziak ezagutzea baliagarria izan daiteke hezkuntza komunitateentzat: premia egoeretan, **irakasleak (zuzendaritzak barne, noski) eta familiak izan daitezke udalera hurbiltzen direnak** proposamenak egitera edota, zenbait arlotan, kolaborazioa eskatzera. Eta agian **ez soilik krisialdian.** Desiragarria da elkarlan hori garai lasaigoetan ere garatzea.

# ARGITALPENAK



## HONDARTZAN JOLASEAN

Anita Bijsterbosch

### TTARTTALO

Azeria, sagua, mapatxea eta hondartza hondartzan jolasean ari dira. Eguzkia goian dago eta eguraldi epela eta goxoa egiten du. Jolasteko gogoz daude denak eta kometa bat hagaldarazi nahi dute, baina arazo bat dute: ez dabil haizerik. Prest al zaude indar handiz putz egiteko eta kometa hegan jartzen laguntzeko? Abia dadin jolasa.



## NAIAN

Jon Aranguren – Nerea Loiola

### EREIN

Zergatik dago buruz behera? Zer gertatzen zaio? Horrela egongo al da beti? Noiz arte? Noiz jarriko da normal, besteok bezala? Eta, nor-bait betirako desberdina bada, zer? Arazo izan al daiteke hori? Galdera asko planteatzen ditu liburuak eta aniztasunari buruzko hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu Jon Aranguren.



## MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA

Joseba Sarrionandia – Ares

### PAMIELA

“Benetako historia bat” kontatzeko eskatu dio neskato batek amonari. XVI. mendean munduari emandako lehenengo bira –Magallanesen eta Elkanoren itsasaldi entzute-tsua– azaltzen hasiko da amona eta horrek benetako beste historia asko azaltzeko aitzakia ekarriko du. Bilobak arretaz entzungo ditu amonak esandako guztiak.




## ZAPOREEN ABENTURA

Hainbaten artean

### SAURE

Zaporeei garrantzi berezia ematen die komikiak eta dieta osasungarria izatearen garrantzia azpimarratzen du. Sortzea eta berritzea funtsezkoa da, baina plater tradizionalei muzin egin gabe. Jonatan Miranda, Bittor Rodriguez eta Edorta Corpas dira gidoilariak eta Sara Calzadak eta Victor Araquek egin dituzte irudiak.



## ASKOTARIKO ADIMENAK MARTXAN

Montserrat del Pozo

### EHU

Bartzelonako Montserrat ikastetxearen eguneroko jardunaren oinarri pedagogikoak zein diren eta 0-6 urteko haurren artean askotariko adimenak lantzeko zer hezkuntza-jarduera bideratzen dituzten azaltzen du liburuak. Helburua argi dute: haur jakintsuagoak eta zoriontsuagoak heztea.



## HONA GU HEMEN

Oliver Jeffers

### TXALAPARTA

“Kaixo eta ongi etorri planeta honetara. Lurra esaten diogu. Globo handi bat da, espazioan zintzilik, eta hor bizi gara gu”. Halaxe hasten da Oliver Jeffers idazle eta ilustratzailearen liburua, mundu honetara iritsi berriak jakin beharreko guztia azaldu nahian. Garazi Arrulak egin du itzulpena.

# PROPOSAMENA

## Donostiako Aquariuma

### Itsasoaren barrunbeak arakatzen

Portuan, Kontxako badiari eta Kantauri itsasoari begira dago Donostiako Aquariuma. Urtero-urtero milaka bisitari hartzen ditu eta denek jakin-minez begiratzen dituzte arrainontzietan igeri dabiltzan arrain eta itsasoko bizidunak. Arrain, marmoka, anemona, itsas zalditxo eta itsas izarren artean marrazoak dira ikusmin handiena sortzen dutenak. Baita Getaria eta Zarautz artean ehizatutako balearen hezurdurak ere.

**E**uropako lehen aquariume-tako bat da Donostiakoa. 1908. urtean erein zuten gaur egun Aquariuma denaren hazia. Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteak ozeanografia garatzea eta sendotzea zuen helburu, baina arrantza eta arrantzaleen bizimodua hobetzea ere lehentasunak zirenez, arrantza eskola sortu zuten lehenik. Zientzia laborategia ere sortu zuten eta hiru hiletik behin ozeanografiari, meteorologiari, arrantzari eta arrainen birpopulazioari buruzko ezagutzak zabaltzeko buletina argitaratzen hasi ziren. Gerora inauguratu zuten gaur egungo eraikina, Donostiako portuan dagoena. 1928. urtean zabaldu zituen ateak eta hainbat aldaketa eta berrikuntza izan dira ordutik. 1998an egindakoa handia izan zen Xabier Lasaga Aquariumeko Marketing eta Komunikazio arduradunak azaldu duenez: “Lehengo kristala kendu eta akuarioetan metakrila-toa sartu genuen. Horrek akuario

handiak egiteko aukera eman zigun eta ozeanarioa egin genuen. Gaur egun Aquariumak duen akuario-rik handiena da: milioi eta erdi litro ur baino gehiago biltzen ditu. Txuri eta Urdin marrazoak ekarri genituen eta horrek ikusgarritasun

handia eman zigun”.

2008an berrikuntza gehiago izan ziren. Besteak beste, beheko akuarioetan espezie tropikalak sartu zituzten: “Beste itsasoetan bizi diren espezie bereziak sartu eta museoa eraberritu genuen. Protagonismo





handia eman genion 1878. urtean Getaria eta Zarautz artean ehizatu zuten baleari. Bertan dago bere hezurdura. Euskal Herrian ehizatu zuten azken aurreko balea da eta Aquariumeko ikonoa izan da beti”, dio Lasagak.

Gaur egun, gutxi gorabehera, 43 espezieetako 6.000 arrain daude ikusgai. Eta espezie gehienak Kantauri itsasokoak dira. 31 akuariorietatik 20, bertako espezieekin osatu dituztela dio Lasagak: “Ez dugu sorrerako ikuspegia galdu nahi eta bertakoek gure itsasoan dugun aberastasuna ezagutzea nahi dugu”.

### Arrainak baino gehiago


Arrainek eta itsasoko bizidunek protagonismo berezia dute, jakina, baina Aquariuma hori baino askoz ere gehiago da eta bisita eginda, nabarmen geratzen da euskaldunok itsasoarekin harreman estua izan dugula mendeetan zehar. Euskal baleak eta haren inguruan sortu zen industriak protagonismo handia dute, euskal arrantzaleek non eta nola arrantzatzen zuten, arrantza sistemak, estropadak gure herri kirolak direla, euskaldunok kortsa-rioak izan ginela... Guztiak du lekua Aquariumean. Izan ere, museo ozeanografikoa ere bada.

Etengabe berritzen dute euren eskaintza. Bisitari askok errepikatzen dute esperientzia eta haiek gauza berriak ikusteko eta ezagutzeko aukera izatea nahi izaten dute. Eskaintza soilik ez, bertako ura ere egunero berritzen dute: “Egunero hartzen dugu ura Kontxako badiatik. Urak zirkuitu bat du eta % 3 berritzen da egunero. Ura badiatik jaso, garbitu eta zaharra botatzen dugu”, azaldu du Lasagak. Ikusten ditugun arrainontzi horien atzean, lan ikaragarria dagoela azpimarratu du.

300.000 bisitari baino gehiago jasotzen dituzte urtero eta Euskal Herrian, Guggenheimen ondoren, bisita gehien jasotzen dituen museo da Aquariuma.

### Hezkuntza eskaintza

Bisitari horien artean asko eta asko ikasleak izaten dira eta horiei begira hezkuntza eskaintza zabala du Donostiako Aquariumak, hasi Haur Hezkuntzatik eta Batxilergoraino. Eskoletatik bisita ugari jasotzen dituztela aipatu du Pablo Casares, Aquariumeko Dibulgazio eta Hezkuntza Saileko koordinatzaileak: “Bisita gidatuak eta bisita libreak egiten ditugu eta urtero edo bi urtetik behin bisita gidatu



### Donostiako Aquariuma

Carlos Blasco Imaz plaza, 1  
20003 Donostia (Gipuzkoa)  
<https://aquariumss.com>  
943 44 00 99

### Hezkuntza eskaintza

- **Bisitak:** hainbat bisita eskaintzen dituzte etapaka antolatuta: HH, LH, DBH eta Batxilergoa.
- **Material didaktikoa:** bisitak osatzeko material didaktikoa dute. Web orrian daude fitxak eta bideoak eskuragarri.
- **'Arrainekin lotan' jarduera:** familiek edo eskolek egiteko moduko plana da. Arratsaldean iritsi, Aquariuma bisitatu, film edo dokumentalen bat ikusi, arrainekin batera lo egin eta bertan gosaltzeko aukera ematen du.

berri bat eskaintzen saiatzen gara. Eskola curriculum aintzat hartzen dugu jarduerak diseinatzerakoan eta Haur Hezkuntzako umeen kasuan, adibidez, koloreak edota formak lantzen ditugu”. Ikasleekin batera lantzeko fitxa didaktikoak osatu dituzte eta beste jarduera batzuk ere eskaintzen dituzte: familientzako tailerrak, esaterako. Guztien artean bereziena, ordea, *Arrainekin lotan* izeneko da. Aquariumean, arrain artean lo egiteko aukera eskaintzen diete familiei zein ikastetxeei.

# ATZEKO ATETIK



## IKASTURTEAREN EBALUAZIOA

**ESTEBAN BORROME ETA ORTZI JAUREGI**  
BAIONAKO BERNAT ETXEPARE LIZEOKO  
TERMINALEKO IKASLEAK

**2**021-2022ko ikasturtea bukatuta, aurten izandako gertakari eta tematika ezberdinak Otik 10era notatu ditugu.

0- Minusekin ezin dugunez notatu, euskararekiko Hezkunde Nazionalak gaur egun duen jarrerari 0-ko nota ematen diogu. Izan ere, frantses Hezkunde Nazionalarengandik azterketak euskaraz pasatzeko eskubideari begira gibelakada nabarmentsua egin da. Egoera ezin txarragoan kokatuak gira, izan baxoa euskaraz pasatzeko eskubidearen aldetik, zein brebetaren azterketa euskaraz egiteko eskubidearen aldetik.

1- Frantses hezkuntza sisteman duela urte batzuk izan diren erreforma eta aldaketa garrantzitsuak aipatu behar ditugu. Adibidez, Parcoursup plataforman eskola batzuek berme bat galdegiten dute ikaslearen dosierra irakurria izan dadin. Horrek dirudinei mesede egiteaz gain, ikaslearen arteko inegalitateak handitzen eta agerian ezartzen dituela argi da.

2- Pandemiari aurre egiteko neurri bereziak gaizki kudeatu dira. Protokolo sanitarioa bi aste guziz aldatzen zen. Lizeoko ikasle, irakasle, buraso, langile guzientzat egoera jasangaitza izan zen.

3- Ikasleengandik inplikazio eskasa, bereziki “Azterketak Euskaraz” mugimenduarekiko. Lizeoko ikaslearen partetik, erantzun eta mobilizazio ahula izan da. Kamisetak saldu baino gehiago, ehun berde horren gainean idatzia den lema behin betiko ozen aldarrikatu dezagun, gure eskubideen zilegitasuna muturreraino bultzatuz.

4- Jantegiko janariaren xahutzea. Harritzekoa da, egunero, jantegiko zikinontzietatik zenbat janari botatzen den. Horren mugatzeko eta ikasleak sentsibilizatzeko pausoak egin badira ere, egoera ez da asko aldatu.

5- Euskararen erabilpena. Azken urte hauetan Etxepareko ikasle ainitz erraztasunez lerratzen dira erdarara eta, horren ondorioz, hizkuntzaren erabilpena biziki apala dela iruditzen zaigu. Antolatzen diren ekitaldi eta ateraldietan parte hartzeak ikaslearen euskal nortasuna azkartzea ahalbidetzen du. Baina bere hizkuntza baliatzen ez duen euskaldun senditzen denari nola deitu behar zaio orduan?

6- Lizeoko ordutegia gaizki antolatua da. Asteazken arratsaldetan 3rak arte kursoak ditugu, inguruko lizeoek berantetik 12etan bukatzen dituztelarik. Asteazkeneko eta osti-

rako eguerdiko pausan jateko tarte biziki laburra dugunez, arratsaldeko kursoetara aire hartzerik gabe joan behar dugu.

7- Urtean zehar antolatu diren ekitaldien ugartasuna aipatu nahi dugu.

8- Azken urteetan lizeoan sortutako euskal talde giroa nabarmentzekoa da.

9- Euskarari lotutako ateraldiak berriz bizi izan ditugu pandemia-rengatik bi urtez ezeztutako egon ondotik.

10- Lizeoko urteak bikainak direla entzuten dugu usu, haurtzarotik heldutasunera pasatzeko garaia dela eta gure bizitzako une onenak bertan bizi izanen ditugula. Bereziki, Etxeparen Iparraldeko lau kolegioak biltzeak jende berria ezagutzeko parada eskaintzen digu eta Iparraldeko hainbat xokoetarik etorritako ikasleekin nahasten gira.

Bukatzeo, ez dugu ahantzi behar, nahiz eta batzuek lizeoko garaiak goxoki eta giro onean iragan dituzten, beste batzuek ez dutela sentipen bera izan eta ez dutela hortaz beti oroitzapen ona atxikitzen. Horretarako, beti arretaz entzun eta arretaz zaindu behar dugu gure ondoan dena, gogoratu ezberdintasunak talde baten aberastasuna osatzen duela.



92 orrialde

# Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo

**Koldo Rabadan Izagirre**

Zoriontasunak barrutik kanporako bidea egiten du; nekez egingo gaitu kanpoko edukiak zoriontsu. Garenak egingo gaitu nor, eta garen horrek, sentitzen dugunarekin lotura zuzena du, emozioekin erlazio banaezina. Emozionatzeko gai diren eskolak behar ditugu, eta zirrara sortzeko gai diren irakasleak. Bazatuz?

14€

+ 4€  
bidalketa  
gastuak.

40€-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.



Liburuaren egilearekin eskolan solasaldi bat antolatzeko jar zaitez gurekin harremanetan:

**943 37 15 45 solasaldiak@argia.eus**

**azoka.argia.eus 943 37 15 45**

Hemendik aurrera erosketak **BIZUM** bidez ere ordaindu daitezke.

 **ARGIA**

## LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN

### **Edukiak:**

Tutore gogoetatsuaren rola, 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak, hezkuntza proiektuaren prozesua, espazioaren antolaketa, ebaluazio hezigarria, pedagogia sistemikoa...

### **Koordinatzaile pedagogikoa:**

Aritz Larreta

### **Formazio pertsonaleko koordinatzailea:**

Alvaro Beñaran



## 0-6 ETAPAKO ADITU TITULUA



### **Edukiak:**

**Lehen ikasturtea:** Zaintzaren garrantzia. Emmi Pikler

**Bigarren ikasturtea:** Pedagogia eraldatzaileak

### **Koordinatzaile pedagogikoa:**

Kristina Goñi

### **Formazio pertsonaleko koordinatzailea:**

Alvaro Beñaran

## JIRAFAREN HIZKUNTZA. KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA

### **Edukiak:**

Adierazpen zintzoa, entzute enpatikoa, errurik gabeko guneak sortzeko trebetasuna; gatazken kudeaketa; amorraren kudeaketarako trebetasuna; mugak jartzeko trebetasuna; ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna...

### **Formatzailea:**

Nerea Mendizabal



## PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA



### **Edukiak:**

Gorputzaren bidezko komunikazioak eskaintzen duen errespetuzko entzute, itzarote eta laguntzeko trebetasunak eskuratzen hastea; haurren jolas librea behatzea...

### **Formatzailea:**

Mapi Urresti